



**MAIDER  
ETXEBARRIA**

**VITORIA  
EN POSITIVO**  
**BAIETZ  
GASTEIZ**

**2023KO HAUTESKUNDE PROGRAMA**  
**Udal hauteskundeak**

**#VitoriaEnPositivo**  
**#BaietzGasteiz**



## **BAIETZ GASTEIZ**

Beste **udal hauteskunde** batzuen aurrean gaude **lau urte oso zail** igaro ondoren. Pandemia bat bizi eta jasan izan dugu –horren arrastoekin jarraitzen dugu oraindik– eta Ukrainako gerraren eta krisi energetikoaren ondorioak bizi ditugu.

Atzean utzi dugu legegintzaldi bat, non sozialistek **gobernu-erantzukizunak garatu** izan ditugun Vitoria-Gasteizko Udalean eta non, agertoki horren ezegonkortasuna gorabehera, **politikak, politika onak, herritarren arazoak konpontzeko balio duela** erakutsi izan dugun.

Udal hauteskunde batzuen atarian gaude berriz ere, eta **Vitoria-Gasteiz gobernatzeko asmoarekin** heltzen diegu, hiria gai izan dadin aldarrikatzen dugun hiria, hots, hiri **bizia, aktiboa eta bizilagunak zaintzen dituen**a, izan ahal izateko aurre egin behar dion eraldaketari heltzeko.

**Hiri ireki bat, konektatuagoa, garbiagoa eta feminismoaren, justizia sozialaren eta ekologiaren** balio sozialistak lematzat dituen**a, aldaketa lasaia gidatu** eta, horrela, Vitoria-Gasteiz **oraindik hobego bat, harro sentiaraztekoa**, eraikitzeko. ***Baietz Gasteiz.***

## **Hiri hobegoa. Oparoa eta jasangarria**

**5**

○ Industria	7
○ Enpresak eta autonomoak	8
○ Merkataritza	9
○ Enplegua	10
○ Ekonomia zirkularra, trantsizio energetikoa eta ingurumena	12
○ Mugikortasuna eta garraioa	15
○ Etxebizitza, hiri-plangintza eta -berroneratzea	18
○ Turismoa	20
○ Ogasuna	22
○ Herritarren segurtasuna	23

## **Zaintzen duen hiria. Osasuntsua, askotarikoa eta gizatiarragoa**

**25**

○ Zainketen gizarte-zerbitzuak	27
○ Osasun publikoa eta kontsumoa	31
○ Berdintasuna eta aniztasuna	33
○ Gazteria	37
○ Kirola	39
○ Animalien ongizatea	41
○ Garapenerako lankidetzak	42

## **Bizitzeko hiria. Parte-hartzailea eta memoriaduna**

**45**

○ Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna	47
○ Eraldaketa digitala eta herritarrenganako arreta	49
○ Gizarte-etxeak	51
○ Kultura	53
○ Hezkuntza	56
○ Gasteiz Euskaraz	58
○ Memoria demokratikoa eta hiriaren memoria	59

## **Bere auzoak begian dituen hiria. VG, auzoz auzo**

**60**

**Hiri hobegoa**  
**Oparoa eta jasangarria**



## **INDUSTRIA, AUTONOMOAK, MERKATARITZA ETA ENPLEGUA**

Pandemia zabaldu ondoren eta Ukrainako inbasioaren hasierarekin, sozialistek erakutsi dugu bazegoela **politika egiteko beste modu bat, pertsonak eta horien ongizatea eta oparotasuna erdigunean** jartzen dituen. Gehiengo sozialaren bizitza hobetzeko eta **Ongizate Estatua blindatzeko** konpromisoa hartua dugun pertsonak gara.

**Ekonomiaren suspertzea** bultzatu izan dugu, **hazkunde ekonomiko** kohesionatu, berritzaile eta iraunkorraren alde eginez, ingurumenarekiko begirunetsua dena eta oinarri sozial sendoak dituen, irabaziak ahalik era bidezkoenean banatuz eta **familia kalteberenak babestuz**.

**Enpleguak eta ekintzailetzak lehentasuna dute** proiektu sozialistan. Vitoria-Gasteizen langabezia murriztu egin da amaitu den legegintzaldi honetan, eta pandemia aurretik zen tasaren azpitik dago orain.

Hirian **17 milioi euro baino gehiago** inbertitu izan ditugu **enpleguko politika aktiboetan**, eta erabakimenez lagundu izan diegu enpresei, merkatariari, ekintzaileei zein autonomoei.

Datorren legegintzaldian ere **konpromiso-ildo horrekin jarraitu nahi dugu**, eta **neurri berriak hartu** nahi ditugu **inbertsioak erakartzen** lehiakorragoak izateko, bidea erraztuz gure hirian enpresa berriak ezartzeko.

### **Industria arloan:**

**Vitoria-Gasteiz hiri industrial gisa sendotuko dugu**, enpresen lehiakortasuna jorratu eta gure industrialdeei balioa emanaz inbertsio gehiago erakartzeko.

- **Lurzoru industrial berreskuratuko dugu hiriarentzat**, espazio publikoak, zerbitzuak eta irisgarritasuna hobetzeko jarduketan bidez eta industria-gune mistoak ezarrita.
  - **Jundiz birnaturalizatzeko** proiektua: Espazio publikoak eta airearen kalitatea hobetu zuhaitzak landatuta, landaredia jarrita eta atsedeen guneak sortuta.

- **Iparaldeko Industria Barrutia (gaztelaniaz, DIN):** Lankidetzeta publiko-pribatua Arriagan, Gamarran eta Betoñon berroneratzeko eta hutsik dagoen zoruari balioa emateko.
- **Hiri-hondakin industrialen berrerabilpena sustatuko dugu** ekonomia zirkularraren eredu bateranzko trantsizioa bultzatzeko, material iraunkorrak erabili eta industriako hondakinak berrerabilita.
- **Jundizko Sinbiosi Industrialaren** proiektua, enpresek hondakinak berrerabil ditzaten lehengai gisa.
- **Industrialdeetarako mugikortasuna hobetzeko lanean jarraituko dugu**, garraio publikoa ezartzeak duen potentziala eta garraio jasangarrirako beste neurri batzuk (ibilgailua partekatzeko sistemak, bizikleta...) nabarmenduz.
- **Burokrazia murriztu, izapideak, lizentziak eta erabilerak malgutuz eta azkartuz** hiri ekonomikoki aktibo baterako.

#### **Enpresa eta autonomoentzat:**

**Autonomoei eta eteei laguntza gehiago emango diegu digitalizazio, zibersegurtasun eta berrikuntzako euren prozesuetan**, aholkularitzara, prestakuntzara eta laguntzetara zuzendutako jarduera gehiago jarri eta administrazio-izapideak erraztuz.

- **Laguntzak enpresak sortzeko eta sendotzeko.**
- **Laborategi Hiriaren deialdia:** Enplegu berdea eta tokiko sistema produktiboaren eraldaketa sustatzea, ingurune errealean Vitoria-Gasteiz proiektu berritzaileak probatu nahi dituzte enpresen eskura jartzen duen programa batekin.
- **Laguntza euren prozesuen digitalizazioan eta berrikuntzan.**

**Laguntza-ildo berezi bat sortuko dugu autonomo berrientzat**, enpresa-proiektuak martxan jartzen laguntzeko.

**Ekintzailtza laguntzeko plan integral bat garatuko dugu**, enpresa-proiektuaren fase guztiak bilduko dituena.

- Ekintzailtza Sustatzeko Plana sortzea logistika sektorean.
- Enpresen Zentroa: Basaldea, Jundiz, Alde Zaharra.



**Tokiko Garapenaren Bulegoa indartuko dugu**, betekizun hauek garatu ditzan:

- **Sektore ezberdinentzako (enpresa, merkataritza, turismoa eta enplegua) Zeharkako Laguntza Plan bat prestatu eta gauzatu.**
- **Administrazio-izapideak azkartu enpresa- eta merkataritza-ekimen berriak martxan jartzeko.**
- **Talentua atzitzea** eta gure hirian euren proiektu enpresarialak garatu nahi dituztenei **arreta** eskaini.
- **Sektore ekonomiko berriak sustatu**, ekonomia dibertsifikatuaren, talentuaren, sormenaren eta berrikuntzaren alde eginez.
- **Sormen eta Kultura Industrien Zentro** bat martxan jarri.
- Sektore ekonomiko ezberdinetako erakunde eta eragileekin **lankidetzak koordinatu**.

**Erosketa Publiko Berritzailea bultzatuko dugu** sektore publikotik, berrikuntza sustatzeko tresna moduan.

**Kontratazio publikoaren politika berrikusi egingo dugu**, gardenagoak diren, azterna ekologiko txikiagoa duten, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hobeto sustatzen duten eta gizarte-erantzukizun korporatiboko politikak garatzen dituzten enpresak baloratzea ahalbidetuko duten irizpideak sartzeko.

**Tokiko merkataritzarentzat:**

- **Hurbileko merkataritza berritzaile eta iraunkorra sustatuko dugu**, merkataritza tradizionala merkatuaren errealitate berrietara moldatzen lagunduz eta proiektu berriak babestuz.
- **Merkataritza eta Ostalaritzako Plan Estrategiko berria** garatuko dugu, sektorearekin lankidetzan.
- **'Pertsianak gora' programa. Hutsik dauden merkataritza-lokalak berraktibatzekeo Jarduketa Plana**, laguntzak emanaz (alokairurako eta lokala egokitzeko) lehen proiektuak abian jartzeko, beheko solairuan negozio-ildo berriak sustatuta hiriko enpresaren kontzeptua garatzeko

eta lonjen erabilpenerako alternatiba berriak aztertzeko, adibidez etxebizitzetarako.



- **Tokiko merkataritza sustatzen dugu,** laguntzak eman eta aholkularitza eta prestakuntza eskainita.
- **Pertsonen eta enpresen etengabeko prestakuntza eta eguneratzea eskaintzeko planak sustatuko ditugu.**
- **Tokiko ekoizleen azoka ez-sedentarioak indartuko ditugu,** hiri-espazioak berreskuratuz.
- **Salmenta ibiltaria hobetzeko ekintzak garatuko ditugu.**
- **Kaleko azoka txiki berri bat ezartzeko tokia bilatuko dugu** gizarte eragileekin batera.
- **Hurbileko merkataritza dinamizatuko dugu** euren proposamenak hainbat merkataritza-ildotan garatuko dituzten gazte sortzaileen parte-hartzearekin.
  - "Saltoki bat, artista bat" programa.
- **Sektoreko elkarteekin egingo dugu lan,** sektorearen errentagarritasun ekonomikoa eta soziala bilatuko duten praktika berritzaileak ezartze aldera.
- **Sektorean jardunbide onak aintzatestea sustatuko dugu.**
- **Tokiko Merkataritzaren Behatokia indartuko dugu.**

### **Enplegu arloan:**

- **Aurrera egingo dugu enplegu-politika aktiboak garatzen,** kalitateko enplegua, inklusiboa eta berdinzalea dena, sortzen joateko.
- Beste erakunde eta eragile sozial eta ekonomikoekin dugun **lankidetzaren indartuko dugu,** enplegu duina sortzeko eta proiektu berritzaileak sortzen jarraitzeko.



- Iraupen luzeko **langabezia diren pertsonen kontratazioa** eta nahi gabeko partzialtasuneko kontratuak hobetzea bultzatuko dugu, eta soldata- eta genero-arrakala murrizteko neurriak sustatuko ditugu.
- **Ignacio Ellacuria Prestakuntza Zentroa - CETIC prestakuntzako plan pilotuen erreferente izan dadin urratsak emango ditugu.**
- **Ekintzailtza eraldaketa ekonomikoaren palanka bat** da; horregatik, Vitoria-Gasteizko Udalaren enpresa-mintegiak (Alde Zaharra, Jundiz eta Basaldea) sustatzen jarraituko dugu. Enpresa berriek merkaturako aukera berriak bilatzen dituzten eta enplegua sortzen duten guneak dira.
- **Enpresen Zentro Irekia garatuko dugu** Erdi Aroko Hirigunearen mendebaldeko hegalean, hutsik dauden lokalak negozio-eredu berrien egoitza izan daitezten.

## EKONOMIA ZIRKULARRA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA INGURUMENA

Sozialistak **benetako politika ekologikoak burutzeko eta kudeatzeko gai garen** alderdia gara. Politika horiekin, Europako Itun Berdearen helburuetara heltzen goaz 2030erako berotegi-efektuko gasen isurketak erdira murrizteko eta 2050ean karbonoan neutraltasuna lortzeko.

PSE-EEK erakutsi du ez duela bazter uzten premiazkoa denaren garrantzia, eta kontuan du narriadura ekologikoaren sustraiak kulturalak eta ekonomikoak direla eta **ekonomia altxatzeko inbertsioak eta proposamenak iraunkortasunaren konpromisoarekin batera** kudea daitezkeela.

Next Generation EU europar funtsak lortu izanak, merkatu energetikoaren erreformak, salbuespen iberikoak, Euskadiko Kontingentzia Energetikoaren Planak eta garraio publikorako ezarritako hobariak ondo azaltzen dute sozialistentzat **funtszko kontu** bat dela **ingurumena zaintzea** eta horri lotutako zerbitzuen premia.

Horregatik, hobeto hazi gaitezen:

- **Zero kilometroko kontsumoa sustatuko dugu**, horren zabalpenerako eta sektoreari laguntzeko kanpainak eginez.
- **Nekazaritza ekologikoa indartuko dugu** Basaldearen bidez, eta nekazaritzako elikagai-sistema iraunkorrak babestu eta garatuko ditugu.
- **Kluster bat sortuko dugu**, gure poligonoetako industriak eta Miñaoko Parke Teknologikoa, ekintzaileak, elkarteak, GKEak eta unibertsitateak bilduko dituenā, hauxe ziurtatzeko: egungo ereduaren eraldaketa – prestakuntzatik hasi eta enpleguraino–, eta eragile guzti horien presentzia handiagoa ekonomiaren trantsizio ekologikoan.
- **Ekonomia zirkularrerako ekintza-planak prestatuko ditugu**, Estatuko ekonomia zirkularrerako estrategiaren ardatzak txertatuta. Udal mailan, berriz, alderdi hauek jasoko ditu:
  - **Ekonomia zirkularraren ikasgelak**, kontsumo arduratsua eta ekologiaren gaztelaniazko hiru 'R'ak (Reducir-murriztu, Reciclar-birziklatu, Reutilizar-berrabili) sustatzeko kanpainak, eta prestakuntza-programak ekonomia zirkularraren maila guztietan.

- **Elikagaiak alferrik xahutzea murriztu**, azken minutuko elikagaiak (iraungitze-data hurbil dutenak) eta soberakinak dohaintzan ematea sustatuz supermerkatu, ostatu eta saltokietatik Gurutze Gorria eta Elikadura Bankua bezalako elkarteentzat, eta urratsak emanez elikadura zirkular, iraunkor eta hurbilekorantz.
- **Ekodiseinua eta ekonomia zirkularra kontuan izatea**, puntuazio-irizpide bezala, kontratazioko pleguetan eta laguntza publikoko programetan.
- Kontratazio publiko berde zirkular eta iraunkorrean **irizpideak lehenetsi eta nahitaezko gutxienerako helburu batzuk ezartzea**.

### **Ingurumen egoki batez gozatzeko eta geu gehiago eta hobeto zaintzeko, berriz, hau egingo dugu:**

- **Hiriaren garbiketa hobetuko dugu**, baliabideak kudeatzeko egungo kontratuaren gaineko kontrola eta jarraipena indartuz eta baliabide gehiago bideratuz, behar izanez gero.
- **Pintadak ezabatzeko talde bat sortuko dugu**, toki pribatuetan aritu ahalko dena, jabeei aurretik baimena eskatuta.
- **Garbigune txikiak jartzea aztertuko dugu** etxeko hondakinentzat, gure kaleak garbiago egon daitezen, eta horien birziklapena egiteko.
- **Poltsa biodegradagarriak eskainiko ditugu** beste Administrazio batzuekin lankidetzan, baita %100ean plastiko birziklatuarekin egindakoak ere, hondakinen arabera koloretan identifikatzen direnak, birziklapena erraztu eta hobetzeko.
- Udal eraikin eta instalaziotan, **eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasuna hobetzen jarraituko dugu**.
- **Blindatu egingo dugu komunitate kontzeptua** eta identitate-sentimendua, komunitate energetikoen bidez autokontsumo eta autoekoizpen energetikoan parte hartuko duten sozietateen bitartez.
- **Argiztapenaren Interbentzioko Plan bat egingo dugu**, kontsumoa eta argi-kutsadura murriztuko duten erabilera-sistema adimentsuen bidez **kale eta parkeetako argiztapena behar denean hobetzeko**.

- **Zarataren kontrako plan bat sustatuko dugu**, Erdi Aroko Hirigunean gaueko aisialdiak sortzen duen zarata gutxitzearen.
- **Zuhaiztien kudeaketa eraginkorra bermatuko dugu**, eta baita hiriko berdeguneen garapena ere espazioaren plangintza adimentsu batekin.
- **Parke eta lorategi publiko berriak sortuko ditugu. Zadorraren ibaiertzean** espazioak zedarratuko ditugu haren bazterrak egokitu eta aisialdi eta denbora-pasarako jardueretako erabiltzeko.
- **Azpiegitura ekologikoak sustatuko ditugu**, eta lorategi bertikalak; espezie autoktonoak jartzea bultzatuko dugu parkeen eta lorategien diseinuan.
- **Ikastetxeetara zabalduko dugu udal haur-eskoletan itzalak jartzeko plan pilotua**, eta baita aire libreko jolas-lekuetara ere, aldaketa klimatikora eta tenperatura igoeretara moldatzen joan gaitezten.
- **Ureztatze-sistema adimentsuak jarriko ditugu eta euri-ura aprobetxatuko dugu.**
- **Ibilbide eta pasealeku osasungarriak sortuko ditugu**, herritarren parte-hartzea bultzatzeko eta Hiritarren Sare Berde bat sortzeko.
- **Aniztasun funtzionala duten pertsonen natura hurbiltzeko programak garatuko ditugu.**
- **Hiriko toki hondatuak berreskuratuko ditugu**, baita kontrolik gabeko zabortegeiak ere, eta landa-bideak hobetu egingo ditugu.
- **CO<sub>2</sub> jasotzeko eta biltegitratzeko sistemak ezartzea aztertuko dugu.**
- **Isurpen gutxiko eremu berri bat diseinatu eta ezartzea aztertuko dugu.**
- Biodibertsitatea eta ondare naturala **kontserbatzeko estrategia eguneratu bat garatuko dugu**, eta lehengoratzeko ekologikoa eta ekosistemen osatze funtzionala.
- **Uholdeak aurreikusteko plana berrikusiko dugu**, baldintza klimatiko berrietara egokitzeko.
- **Ingurumen fiskalitatea bultzatuko dugu.**

## MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

Sozialistak **konprometiturik gaude Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren helburuekin**, gure lurraldea eta Vitoria-Gasteiz berotegi-efektuko **isurpenetan toki neutroa** izan dadin.

Horrek **gasen murrizketan urratsak ematen jarraitzera** behartzen gaitu, eta, ondorioz, **osasuntsuaz gain segurua izango den mugikortasun jasangarri bat garatzera**.

Eta, horretarako, hiriak **oinezkoen eta ziklisten mugikortasunarekin** duen konpromisoa indartu nahi dugu gure kale eta espazio publikoak diseinatzean, eta herritarrentzako **garraio publiko irisgarriaren** aldeko apustu irmoa egiten dugu, **segurua eta ingurumenarekiko begirunetsua** izango dena.

**Abiadura Handiko garraioa lur azpian** jartzearen alde egiten segituko dugu; Abiadura Handiko Trenak (AHT), izan ere, hobetu egingo du penintsularekin eta gainerako Europarekin dugun konexioa, eta aukera berriak ekarriko ditu Vitoria-Gasteizen garapen ekonomiko eta sozialarentzat.

Helburu horiek lortzeko:

- **Urratsak emango ditugu AHTren etorreran eta lurperatzean** inplikaturako erakundeekin, egungo tren-arrakala ezabatzearen, Daton geraleku berri bat abian jartzeko eta, hala, aukeraz betetako espazio berri bat zabaltzeko gaur egun trenbideek betetzen duten korridorean.
- **Mugikortasunerako ordenantza berri bat sustatuko dugu** ahalik kontsentsu –politiko eta herritarren mailako– handienarekin, besteak beste, patineteen eta bizikleten zirkulazio antolatu eta segurua ahalbidetuko duena.
- Mugikortasun Elkargunea **biziberrituko dugu**.
- **Hegoaldeko trafikoarentzako konponbideak bilatuko ditugu**. Agindutako azterlanetik ondorioztatzen denaren arabera, **behar diren neurriak ezarriko ditugu, ingurumena errespetatuz**, eta aipatu eremuko trafikoaren bilakaeraren jarraipen etengabea egingo dugu, bertako bizilagunen iritzia aintzat hartuta.

- **BEIren errail** eskusiboetan **taxiak ere ibiltzeko aukera aztertuko dugu.**
- **TUVISArentzako aplikazio** propio bat **prestatuko dugu**, erabiltzaileei denbora errealean informatuko diena haren linea guztien **itxaronaldi eta ibilbideez.**
- TUVISAren autobusak **elektifikatzen jarraituko dugu**, flota osoaren %100eraino iritsi arte.
- **TUVISAren lineak berriz zehaztuko ditugu** Salburuarako tranbia martxan jarri ondoren.
- **Lanean jarraituko dugu Zabalganako tranbiaren proiektua** lehenbailehen garatu eta gauzatu dadin.
- Zabalganako tranbia jartzean kendutako **aparkalekuak eta zuhaitzak berrezarriko ditugu.**
- **Tarifen integrazioa defendatuko dugu** autonomia erkidego mailan, garraio-txartel bakarra ezarrita hiru lurraldeentzat, eta deskontu progresiboak (bidaia gehiago, eta deskontu gehiago) eta garraioko operadore publikoen arteko doako aldaketak.
- **Arabako Mugikortasunaren Agintaritza indartuko dugu**, Udala horren parte baita, partzuergo bihurtuz eta RENFE ere sartuz gure hirian zerbitzuak eskaintzen dituen garraio publikoko operadore gisa.
- **Mugikortasuneko barne-planak egingo ditugu** industrialde handietan lankidetzak publiko-pribatuaren (Udala-enpresak) bidez. Hori guztiori, garraio publikoa edo bitarteko alternatiboak (bizikletak edo patineteak) erabiltzeko nahikoa izango diren azpiegiturak bermatzeko.
- **Bidegorri sarea zabaltzen jarraituko dugu**, galtzadan eta errepideko gainerako zirkulaziotik banandurik ezartzeko kontua hartuta.
  - **Galtzadara aldatuko ditugu espaloietan dauden bidegorriak**, posible denean behintzat, bananduta jartzeko.
  - Bidegorriak **mantentzeko eta zaintzeko urteko plan bat sortuko dugu.**



- **TAO zabaltzen jarraituko dugu**, Mugikortasun Planak agintzen duenari jarraituz.
- **Autokarabanentzako tokia bilatu eta aparkaleku berri bat eraikiko dugu**, beharrezko zerbitzuekin.
- Hiriko sarreran **disuasio-aparkaleku berri batzuk eraikitzea aztertuko dugu**.
- Ibilgailu elektrikoentzako hirian **karga-gune berriak jartzea sustatuko dugu**.
- **Istripu-tasari buruzko azterlan bat egingo dugu urtero**, neurri prebentibo eta zuzentzaileak garatzeko.
- Hiriko hainbat bazterretan **trafikoa lasaitzeko politikarekin jarraituko dugu**.
- **Eskola-bide seguruak** diseinatzen **jarraituko dugu**.
- **Trafikoko seinaleak berrikusi egingo ditugu**, eta seinale berriak jarriko ditugu informazio argi eta seguruagoa emate aldera.

## ETXEBIZITZA, HIRI-PLANGINTZA ETA -BERRONERATZEA

Pertsona guztiek **etxebizitza duin, egoki eta erabilerraz bat** izan dezaten egiten dugu lan sozialistek. Gure hiriak aurrera egitea nahi dugu funtsezko eskubide hori bermatzeko gaitasunean, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

Badakigu zer garrantzi duen **guztientzat pentsatutako hiri bat eraikitzeak**. Ongizatea eta bizi-kalitatea **hiritarraren globaltasunaren eskura egongo diren ondasun sozialak** izango direnak, edozein dela ere bizi den auzoa.

Eta **hirigintza integratzaile** batean oinarrituta egin nahi dugu hori, **Vitoria-Gasteiz kohesionatuago** bat ekarriko diguna, **lurzoruaren kontsumo arrazoizkoago** batekin, auzo zaharrenak **berroneratzerako** planen hartzaile izango direlarik.

Guzti horretarako, jarduera hauek egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- **Alokairu sozialeko 1.000 etxebizitza publiko eraikitzeako programak sustatuko ditugu**, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan arituta, batik bat gazteentzat, euren emantzipazioan laguntzeko.
- Alokairu sozialerako protokolo bat ezarriko dugu **Eusko Jaurlaritzarekin udal titulartasuneko etxebizitzak birgaitzeko, Bustaldeako etxebizitzak bezala**.
- **Etxebizitza kolaboratiboak garatuko ditugu** eredu sozial, iraunkor eta integral modura, horretan dauden esperientziak aztertu eta praktikan jarrita, autogestioaren bidezko ingurune dinamikoak zein lankidetzazkoak sortze aldera.
- **Udalaren Etxebizitza Behatokia indartu egingo dugu**, biltzen dituen datuekin etxebizitza-politika publiko eta pribatuak modu eraginkorragoan zehazten laguntzeko.
- Vitoria-Gasteizko egungo behar eta erronkei erantzuna emango dien **Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO)** bat onartuko dugu, hirigintza-ikuspegi moderno eta zeharkakoarekin, helburu hauek lortzeko:
  - Hiria eraginkortasun eta efizientzia parametroetan sustraituta garatu eta ehundu, barrualdearen arrazoizko hazkundearekin.

- Hiri-ehunetik hiri gizatiarrago eta sozialagoa izango dena diseinatu.
  - Burokrazia murriztu, izapideak, lizentziak eta erabilerak malgutuz eta azkartuz hiri ekonomikoki aktibo batentzat.
  - Ingurumen eta energia arloko parametroak hobetu.
  - Industrialdeak eraberritu.
- **XXI Zabalgunearen eginkizuna indartuko dugu**, hiritarrentzat sozietate publiko hurbilago, proaktiboago eta integralago bat izan dadin Vitoria-Gasteizek bai hiri-oneratzean, bai birgaitzean behar dituen eraldaketak bultzatzeko, leihatila bakar gisa arituz erakunde ezberdinetako laguntzak kudeatzeko.
  - **Hiri- eta Herritar-sarea Biziberritzeko Programa bat egingo dugu**, eta **Adurtza eta San Kristobaletik** hasiko gara. Programa hori hondatuta dauden auzo zaharretara, errenta baxuenekotara zuzenduko da, horien gizarte- eta ekonomi-berroneratzea gauzatzeko, Zaramagan egiten ari diren bezala.
  - **Espazio publikoak ingurumen-iraunkortasun irizpideei jarraituz berroneratuko ditugu**, eraikitako ondarearen birgaitzea eta auzo eta bizilagun-unitateen birgaitze integrala sustatuz.
  - **Laguntzak emango ditugu birgaitze proiektuetarako**, bereziki errenta baxuenekoei eta behar handieneko auzoei laguntzeko, iraunkortasun energetikoa eta irisgarritasuna ere kontuan izanez.
  - **Tokiko saltokiei laguntza emango diegu** euren negozioentzako irisgarritasuna hobetzeko bultzada behar dutenean.

## TURISMOA

Sozialistak **harro gaude geure hiriaz**. Horregatik, **turismoa jarduera, aberastasun eta nazioarteko marka gisa sustatzen jarraitzeko** konpromisoa hartzen dugu.

**Erreferentziazko turismo-helmuga jasangarria** gara. Gure geografiak eta ondare kulturalak bermatzen digu hori, eta **toki-sustapen eta -garapenerako formula berriak** sustatzen jarraituko dugu, teknologia berrietan oinarrituta, eta lankidetzak publiko-pribatua sustatzen.

Horregatik guztiagatik, hauxe egingo dugu:

- **Vitoria-Gasteiz marka sustatuko dugu** kanpoko azoketan, turismo-helmuga jasangarri gisa.
- **Forondako aireportua** giltzarri da Vitoria-Gasteizko engranaje ekonomikoan; beraz, **hori garatzearen alde jarraituko dugu**, azken hiru hamarkadetako erregistrorik onenak lortu ondoren oraindik ere bidaiari kopuru gehiago lor dezan.
- **Ardoaren zentro bat sortzea aztertuko dugu**, arabar upeltegiak sustatzeari begira eta sektorearekin prestakuntza eta ikerketarako aliantzak ezartzeko.
- **Turismoa sustatzeko kanpainak indartuko ditugu** preferentziazko azoka igorleetan, esaterako Frantzian, Alemanian edo Ingalaterran.
- **Aliantzak bultzatuko ditugu gainerako erakundeekin** kanpo-sustapeneko kanpainetan Vitoria-Gasteiz hiriarik ikusgarritasun handiago emateko.
- **Marketin Turistikoko Plana garatuko dugu**, turismo jasangarria, arduratsua, kalitatekoa eta urtaroen mende egongo ez dena sustatzeko.
- Erdi Aroko harresiaren **begiratoki panoramiko bat eraikiko dugu**. Martin Ttipia plazan dagoen dorretzarrean jarriko da, Goiuri Jauregiaren atzealdearen eta Bakardade Kantoiaeren artean.
- **Produktu berriak sortzeko lan egingo dugu**; "Vitoria-Gasteiz, maila handiko bisita" egitasmoaren barruan natura, ondarea, enogastronomia eta kultura biltzen dituen turismo-eskaintzari lotutakoa izango da, eta hiria bere dorre eta gune garaientatik ezagutzeko aukera emango du.

- **Lankidetzza publiko-pribatua sustatuko dugu.**
- **Vitoria-Gasteiz Espainiako Lehen Hiri Helmuga Ekoturista izendatzea lortuko dugu**, eta turismo sektoreko **tokiko enpresak Ekoturismo Produktuaren Klubean sartzea.**
- **Vitoria-Gasteiz Convention Bureau indartuko dugu**, biltzarrak eta ekitaldiak erakartzeko programekin.
- **Vitoria-Gasteiz Kongresu eta Konbentzioen Nazioarteko Elkartearen (ICCA) sartzea bultzatuko dugu.**
- Europa Biltzar Jauregiak **biltzarretarako duen toki-eskaintza hobetuko dugu** (kanpoko espazioak, beheko solairua, terraza eta erantsitako gelak).
- **Autokarabanen turismoa sustatzeko gunerik berri bat gaituko dugu**, ibilgailu horientzako zerbitzuekin.
- **Kultur turismoa sustatuko dugu**, jaialdi eta ekitaldi berriekin.
  - Musikaren Eguna.
  - Loreen Nazioarteko Jaialdia.
  - Komikiaren Jaialdia.
- **Turismo Adimentsuaren Sistema jarriko dugu abian, eta turismo-zerbitzuak digitalizatuko ditugu**, bisitariari esperientzia gozagarriagoa eta kalitate handiagokoa eskaintzeko.
  - Green Card turismo-txartela.
- **Turismo Jasangarriaren Udal Bulegoa bultzatuko dugu**, Goya zerbitzugune eta garaje zaharrean.

## OGASUNA

Ezin da **justizia sozialik** egon **justizia fiskalik** gabe.

**Aberastasunaren banaketa eta desberdintasunen murrizketa bermatzen lagundu** behar dugu gure ekintzekin, **zerbitzu publikoak ematea eta hobetzea** ziurtatuko duten **nahiko baliabide sortzeko**.

Horretarako, sozialistek haxe proposatzen dugu:

- **Iruzurraren kontrako borroka eta tokiko zergei iskin egitea saihesteko udal politikak indartzea**, horretarako langile gehiago jarritz, beharrezkoa balitz.
- Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzeta eta koordinazioa **indartzea** iruzur fiskalaren kontrako borroka eraginkorrerako.
- **Pixkanakako zergapetze-politika bidezko baten alde lan egitea**, gehien duenak gehiago jarri dezan.
- **Urratsak ematea Zergadunaren Kontuan**, familia-unitate baten zerga, tasa eta prezio publiko iraunkor guztiak 12 hilabeteetan zatikatzeko aukera emate aldera.
- **Zerga arloari buruzko Batzorde Txostengilea berreskuratzea** udal zergak aztertzeko.
- Ingurumen eta iraunkortasun irizpideei lotutako **hobari berriak aztertzea**.
- **Udal inbentario eguneratzea**, udal baliabide eta zerbitzuen kudeaketa hobetearren.

## HERRITARREN SEGURTASUNA

Vitoria-Gasteiz da **Euskadiko hiririk seguruena** eta Espainian antzeko tamainako hirien artean delitu-tasa gutxien duen hirietako bat.

Gure hiriak egoera horretaz gozaten jarrai dezan, 2019-2023 legegintzaldi honetan **handitu egin dugu udaltzain kopurua, 70 udaltzain berri hasi dira**, eta ahalegin handia egin dugu baliabide material berrietan inbertitzeko, besteak beste, **patruila autoen flota berrituta**, 14 ibilgailu elektriko eta hibrido berri eskuratu baititugu.

Gure helburua da **polizia-zerbitzua sustatzen jarraitzea eta egungo behar eta eskakizunetara egokitzea**, baliabide material nahiz giza baliabide gehiago eta hobeagoekin, herritarren segurtasun arloan **eraginkortasunean eta prebentzioan hobetzen** joateko.

Horregatik:

- **Udaltzaingoaren eraikin berria zabalduko dugu**, Jose Erbina kalean.
- **Agirrelandako** komisarian **espazioak berritzeari ekingo diogu** herritarrenganako arreta eta polizia-sailen lan-baldintzak hobetzeko.
- **Azken belaunaldiko segurtasun-kamerak jarriko ditugu** hiriko toki estrategikoetan, jende asko ibiltzen den tokietan eta jarduera komertzial, turistiko edo sozial garrantzitsuko lekuetan.
- **Argiztapenaren Interbentziarako Plan bat garatuko dugu** hiriko toki batzuetan argiteria areagotzeko, eraginkortasun eta iraunkortasun gakoan, betiere, eta segurtasun-sentsazioa hobetze aldera.
- **Udaltzaingoak bilerak egingo ditu aldizka auzo-elkarteekin**, horien kezka eta arazoak ezagutu eta erantzun azkar bat eskain diezaieten.
- Udaltzainen **plantilla handitzen jarraituko dugu** 45 plaza berrirekin, hau da, 15 udaltzain berri legegintzaldiko hiru lehen urte bakoitzeko.
  - **Enplegu-eskaintza publiko bateratuetan hartuko dugu parte**, eta Arkauteko Akademian udaltzaintzako berriarazko eduki gehiago eman dezatela eskatuko dugu.

- **Flota berritzen jarraituko dugu**, bai Udaltzaingoa, bai Suhiltzaileena.
- Udaltzaingoa **sistema informatikoa berritzen** jarraituko dugu.
- Udaltzaingoa eta Suhiltzaileen **baliabide materialetan teknologia berriak txertatuko ditugu**.
- **Webgunea hobetu egingo dugu**, herritarrek informazioa errazago eta azkarrago izan dezaten eskura, eta baita salaketen online izapidea ere.
- Udaltzaingoa "euskal poliziaren" kontzeptu barruan duen **berezitasuna, izaera eta eskumenekiko errespetua bermatuko dugu**.
- Udaltzaingoa, Ertzaintza eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren arteko **koordinazioa hobetzen lan egingo dugu**.



**Zaintzen duen hiria**  
**Osasungarria, askotarikoa eta gizatiarragoa**



## ZAINKETEN GIZARTE-ZERBITZUAK

2019-2023 legegintzaldian **bultzada handia eman diogu udal gizarte-zerbitzuei**, eta erreferente dira orain Euskadin eta Espainian. Gasteizko 16.000 familiari eman diogu urtero laguntza.

Baliabide ugari jarri izan dugu martxan, adibidez, 4 etxebizitza komunitario, San Martin 5eko BIZAN zentroa, adinekoentzako 5 osasun-parke, San Prudentzioko edo Berpizkundearen plazako Adinekoei Laguntzeko Zentro Integralak (ALZI), edo Kontzilia zerbitzua familia zaurgarrietako adinekoei aldi baterako arreta eta zaintza emateko. Horrez gainera, laguntza sozialak handitu egin ditugu, urtean 12 milioi eurora heltzeraino.

Adinekoei eta beren egunerokoan laguntza behar dutenei kalitate handiagoko arreta eskaintzeko gizarte-zerbitzuen eredu batean **urratsak emateko erronka dugu datozen urteei begira. Arazoei aurrea hartzeko gaitasun handiago eskainiko duen eredu bat**, alegia. Eta horrek **zainketen gizarte-zerbitzuetarantz** lerratzen du norabidea.

Apustu anbiziotsu horrek zainketaren, arretaren eta laguntzen hornitzaile bihurtuko du Udala, eta fisikoki hurbil diren komunitateak eraikitzen nabarmenduko da, pertsona guztiei segurtasun- eta babes-sare bat izango duen baliabide eta zerbitzu publikoekin.

Beraz, udal gizarte-zerbitzuak **zainketen gizarte-zerbitzuetan** bihurtzea **proposatzen dugu**, horixe da gure hiri-proiektuaren eredua.

Horregatik:

- **Zainketak lehen lerroan jarriko ditugu** Udalaren gizarte-lanean. Gizarte-zerbitzuak eguneroko zainketak ematera, prebentziora eta behar dituzten **personen zaintzak hornitzera zuzenduko ditugu**. Guzti horren buruan, **Zainketen eta Gizarte Zerbitzuen zinegotzigo** bat egongo da.
- Hiriko lehen **zainketa bulegoa zabalduko dugu Zaramagan**.
- **Programa komunitarioak sendotu egingo ditugu** eta beste batzuk jarriko ditugu martxan, komunitatea zainketa beharrean diren pertsonen laguntza ematen joan dadin, bertan, hots, auzoan edo etxean, bizitzen jarraitzea ahalbidetuz horrela.

- Ikuspegi prebentibo, komunitario nola hurbilekoan oinarritutako arretarako esku-hartze eredu bat **garatuko dugu**.
- **Berrikusi egingo ditugu** Udalak eskaintzen dituen prestazioak, zainketen gizarte-zerbitzuen eredu berrira egokitzeko, behar izanez gero.
- **Gizarte arloko aurrekontua handitu egingo dugu** ekipamenduak hobetzen eta baliabide eta zerbitzu berriak gaitzen joateko.

### **Adinekoentzat:**

- Adinekoen **autonomia eta zahartze osasungarria errazten duten** baliabide, zerbitzu eta **programak indartuko ditugu**.
- **Jantoki-zerbitzu bat zabalduko dugu Pilarreko BIZAN zentroan**, eta beste zentro batzuetan ere jantokiak jartzea aztertuko dugu.
- **Eraberritu egingo dugu Zaramagako BIZAN** zentroa, irisgarriago, erosoago eta modernoago izateko, auzoarentzat zabalik dela.
- **Eguneko Arretako Zerbitzua zabalduko dugu Zaramaga** auzoan.
- **Judimendiko BIZAN** berriaren proiektuari **helduko diogu**; Cola y Goiti kaleko zentroa ordeztuko du.
- Logroño kaleko izotz-pista zaharrean **Bizitza Osasungarrirako Zentro bat jartzeko bideragarritasuna aztertuko dugu**. BIZAN sarean txertatuta egongo da, eta adinekoentzako aisialdirako eta zahartze aktiborako baliabideak eta aisialdi-ekintzak bilduko ditu.
- Adinekoentzako **osasun-parke berriak gaituko ditugu**.
- San Prudentzioko ALZIn **Eguneko Arretako Zerbitzu** berria zehaztu eta egikaritzen **urratsak emango ditugu**.
- **Etxebizitza komunitario** berriak **gaituko ditugu** San Prudentzioko ALZIn.
- **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua** ematea **bultzatuko dugu**.
- **Udal sukalde zentral berri baten azterketan eta garapenean urratsak emango ditugu** beste erakunde batzuekin lankidetzan, eta hobetu egingo ditugu San Prudentzioko ALZiko egungo sukaldearen baldintzak.

- **Nahi gabeko bakardadea borrokatzeko ekintzak garatuko ditugu**, programa komunitario batzuk prestatuz auzoetako elkarte, erakunde eta eragile sozialekin.
- Adinekoen **tratu txarrak hautemateko programak bultzatuko ditugu**, arreta berezia jarriz emakumeen kontrako indarkeria matxistan.
- Adinekoen arrakala digitala ezabatzeko **egingo dugu lan**.

### **Haurtzaroarentzat eta nerabetasunarentzat:**

- Haur eta Nerabeentzako Udal Plan (HANUP) berria prestatu eta onartzeko **egingo dugu lan**.
- Haurren pobrezia kontrako ekintzak **garatuko ditugu**, baita HANUPen ezartzen direnak ere, familiei sarbidea eskainiz Udalaren laguntza eta prestazioetara.
- **Babesgabetasunean diren haurren** detekzio eta esku-hartze goiztiarreko programak **garatuko ditugu**.
- Hiriko haurren **ahotsa eta botoa indartuko dugu**, Udalaren gaitan parte hartzen eta erabakiak hartzen lagunduz Haurtzaro eta Nerabearoko Elkargunearen bidez.
- **Osasun mentaleko plan komunitario berriak jorratuko ditugu**, eta suizidioak prebenitzeko plan bat garatzen jarraituko dugu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin koordinatuta.

### **Bazterkeriaren kontrako borrokan:**

- **Benetako aukera-berdintasuna sustatuko dugu**, egoera okerreanean diren pertsonen kasuan, batik bat.
- **Bigarren udal gizarte-jantoki bat zabalduko dugu** San Bizente Paulekoaren kalean.
- Gizarte inklusiorako tailer berri batzuk **zabalduko ditugu** San Bizente Paulekoaren kalean, Lanbidek homologatuta, lan-merkatuan sartzea errazteko.

- Gizarte-larrialdi egoeretan **ostatu emateko baliabideak indartuko ditugu.**
- **Pobrezia energetikoaren egoerak saihesteko planak prestatuko ditugu**, baita etxegabetzeak ekiditeko ere.
- **Etorkinen benetako integrazioaren alde egingo dugu lan.** Sentsibilizazio- eta informazio-programak garatuko ditugu eta elkartrukerako eta parte-hartzeko guneak sortuko ditugu, diskriminazioaren, arrazismoaren eta xenofobiaren kontrako borroka sustatzeko.
- **Hirugarren sektoreko elkarte eta kolektiboek egiten duten lana indartuko dugu eta horri balioa emango diogu.** Horien lana eta konpromisoa laguntza handia da herritarrentzat, eta erakunde publikoen jarduna osatzera dator.

## OSASUN PUBLIKOA ETA KONTSUMOA

**Vitoria-Gasteiz hiri osasungarri batean bihurtzeko konpromisoarekin** jarraitu behar dugu Udalean.

Gure helburua da gasteiztarren **osasuna eta ongizatea sustatzea, eskuragarri dauden baliabideak eta ekintzak osasuna eta bizi-kalitatea hobetzera zuzenduz**, gure hiriaren ezaugarrietara moldatutako garapen iraunkor baten barruan.

Horretarako, hauxe egingo dugu:

- **Osasun Publikoaren Plan Estrategiko berria garatuko dugu.**
- **Osasunaren babesa udal politika guztietan txertatuko dugu.**
- **Osasun komunitarioaren lan-ildoak bultzatuko ditugu**, osasun alorrean ematen diren desberdintasunak, pertsonalak nola ingurumen aldetikoak, saihestuz. Horretarako, lankidetzan arituko gara gizarte-eragileekin eta auzo-elkarteekin, kontzejuekin eta antzekoekin.
- **Ikastetxeetan osasuna sustatzen eta prebenitzen jarraituko dugu**, baita herritarren eta lanbideko beste arlo batzuetan ere.
- **Zarataren aurkako plan bat garatuko dugu**, gaueko aisialdian herritarren osasunean duen ondorioa arintzeko.
- **“Vitoria-Gasteiz glutenik gabe” programa bultzatuko dugu** glutenik gabeko eskaintza gastronomiko bat eskainiko duten elikadura, ostalaritza eta jatetxe sare bat sortzeko, eta prestakuntza-ikastaroak sustatuko dira jendeak glutenik gabeko askotariko janari-eskaintza presta dezan.
- **Elikagaien kalitatea kontrolatzeko lana indartuko dugu**, eta elikadura-establezimenduen eta jantoki publikoen gaineko kontrola.
- Telefono kabina zaharrak Bizitzako Esku-hartze Gunetan **bihurtzeko proiektu bat garatuko dugu**, desfibriladoreak jarriz bide publikoan erabiltzeko, hiri kardiobabestu izateko urratsak ematen jarraituz, horrela.

- Etxebizitzetan osasungaiztasun egoeretarako eta beste antzeko batzuetarako **jarduera-protokolo bateratuak prestatuko ditugu** Osasun Publikoaren eta Gizarte Politiken sailen artean.
- **Usoen eta arratoien populazioa kontrolatzeko** neurri berri batzuk bilatu eta aplikatuko ditugu.
- **Kontsumitzaileen eskubideak defendatuko ditugu** eta kontsumo arduratsua sustatu eta erakutsiko dugu.
- Vitoria-Gasteizek **elikagaiak alferrik xahutzearen kontrako** programa eta ekintzetan parte hartzea **sustatuko dugu**.



## **BERDINTASUNAREN ETA ANIZTASUNAREN ALDEKO HIRIA**

Alderdi Sozialistaren bidez, **emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra** aldarrikatzen dugu. Horregatik, gure hirian **berdintasunerako politikak eta indarkeria matxistaren kontrakoak garatzen jarraitu beharra** berresten dugu.

Vitoria-Gasteizek lan egin behar du **emakumeen bizitza eta bizikidetzarako espazio bat izan dadin**; hau da, emakumeak aske, seguru eta duintasunez bizitzeko espazio bat. Horrek esan nahi du **indarkeria matxista desagertzea, sentsibilizatzea** eta biktimak eta bizirauleak **babestea, laguntzea eta ahalduntzea**.

Horretarako, hauxe planteatzen dugu:

- **Berdintasun-politiken berriazko zinegotzigoa indartzea**, Udalaren lana hobeto garatu eta kudeatzeko.
- **Berdintasunerako politikak gauzatzea Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren bitartez.**
- **Emakumeen enplegua laguntzeko neurri eta programak indartzea, ekintzaitzarako** duten gaitasuna hauspotu eta udalerriko sektore ekonomikoetan horien **presentzia eta parte-hartzea** erraztuz.
- **Soldata-berdintasuna bermatzeko eta soldata- eta lan-diskriminazioa saihesteko** neurriak **ezartzea**, eta baita laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonalaren erantzunkidetasunera eta uztartzera zuzendutako neurriak ere.
- **Herritarren parte-hartze organo** guztiek **erabakiak hartzerakoan emakumeak ere egongo direla sustatzea.**
- **Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunean ezarritako neurriak gauzatzea toki eremuan.**
- **Gizartea berdintasunean bizitzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren, prostituzioaren eta sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka kontzientziatzeko eta sentsibilizatze**ko ekintzak garatzea.
- **Udal programa eta tailerrak sustatzea** honako arlo hauetan: balioetan hezte, berdintasuna sustatzea, matxismoaren prebentzioa, maskulinitate positiboak, osasun eta sexualitate arduratsurako heziketa,

eta baita programa bereziak ere ikastetxe eta hezkuntza-zentro guztietan heziketa afektibo-sexualari eta indarkeria matxistari buruz.



- **Emakumeek hiri seguru batean bizitzeko duten eskubidea bermatzea**, arrisku-faktoreak identifikatuz horiekin lan kontziente bat eginda eta genero-ikuspegidun hirigintzan sakonduta.
- Mugimendu feministarekin **elkarlanean aritzea erabateko berdintasuneko jai aske** batzuk lortzeko.
- **Genero-ikuspegia txertatzea udal politika guztietan eta udal aurrekontuetan.**
- **Vitoria-Gasteizko Emakumeen Etxea indartzea** programazio zabalagoa izan dezan eta mugimendu feministarentzako toki ezagun eta aintzatetsia izan dadin.
- **Berdintasunaren Elkargunea indartzea**, hori izango baita berdintasun arloan parte hartzeko foro nagusia.
- **Vitoria-Gasteizko Pobreziaren Feminizazioari buruzko Txostena eguneratzea.**
- Genero berdintasunaren alde lan egiten duten **emakume eta erakundeei ikusgarritasuna emateko urteko sari** batzuk **sortzea.**
- **Kultur eskaintzak** berdintasunarekin zerikusia duten gaienezako txoko berezi bat izango duela **ziurtatzea.**
- Mugimendu feministak Vitoria-Gasteizko gure hiriak **kale-izendegi errealistagoa, berdinzaleagoa eta feministagoa** izan dezan egiten dituen eskakizunak **betetzea.**

Proiektu sozialistak **herritar guztien arteko berdintasuneko tratua eta bereizkeriarik eza** defendatzen du tolerantzian eta inklusioan oinarritutako ikuspegi intersektional batetik, eta ekintza publikoa behar da du **aniztasunarekiko errespetua eta benetako integrazioa bermatzeko.**

Sozialistek haxe egiteko konpromiso hartzen dugu:

- **Berdintasun Traturako Udal Plan bat sustatzea**, sexu, adin, arrazaren, etniaren, erlijioaren edo sexu-orientazioarengatik bereizkeriarik ez dela egongo zaintzeko.

- **Aniztasuna sustatu eta babestea** eta pertsonen eta kolektiboen **bereizkeriaren eta estigmatizazioaren kontra borrokatzea.**
- Kultura, jatorri edo sexu-orientazioaren aniztasunetik inklusioaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten **erakunde eta kolektibo sozialei** eskaintzen zaien **laguntza eta lankidetzak indartzea.**
- **Aniztasunaren Eskola sortzea, LGBTI ahalduntzea** jorratzeko.
- **LGBTIfobiaren kontrako Behatokiari baliabide gehiago ematea,** prestakuntza-, prebentzio- eta jarduketak-planak ere gara ditzan.
- **Bereizkeriaren eta gorroto-delituaren biktima direnen arretarako udal bulegoak sortzea,** LGBTIfobiaren kontrako Behatokiaren eskutik aholkularitza bermatzeko.
- **Berdintasun politiketan prestatzeko planak bultzatzea** udal funtzionarioentzat.
- Ijito komunitatearen gizarteratzea eta laneratzea indartzeko **neurri bereziak sustatzea.**
- **Hizkuntza inklusiboaren erabilera sustatzea udal administrazioan.**
- Urrakortasun egoeran diren pertsonen eta kolektiboen eskubideak defendatzen dituzten **erakunde sozialei laguntzea.**
- **Ikastetxeekin lankidetzak-hitzarmenak sustatzea** ikasleek elkartasuna, enpatia, elkarrekiko errespetua eta bizikidetzak bezalako funtsezko balioak landu eta indartu ditzaten.
- **Ikusgarritasuna ematea** kultura arteko aniztasunari, aniztasun afektibo-sexualari eta sexu-orientazioko **aniztasunari, sentsibilizazio kanpainen** bidez.
- **Topaguneak sortzea** adin, jatorri, kultur eta sexu-orientazio eta -identitate anitzeko pertsonentzat.
- **Beste kultura eta hizkuntzetako emakume etorkinen integrazioa erraztea** gure hizkuntza ofizialak ikasteko programen eskaintza publikoaren bidez.
- Migrazioaren errealitateari eta guztien giza eskubideak errespetatuz bakezko bizikidetzak duen garrantziari buruz sentsibilizatzeko **prestakuntza-programak prestatu eta sustatzea.**

- Parte-hartze aktiboa **zurrumurrueen kontrako espazioetan** eta **arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako sareetan**.

Sozialistek **oztoporik gabeko hiri bat nahi dugu**, non pertsonak **modu bidezkoan, ekitatezkoan eta bereizkeriarik gabe** bizi ahalko diren elkarren artean. Horretarako, hauxe proposatzen dugu:

- Irisgarritasuna **sustatu eta indartzea desgaitasuna duten pertsonen ondasun, zerbitzu eta inguruneetarako sarbidea errazteko**.
- **Sentsibilizazio, kontzientziazio eta ezagutzako ekintzak burutzea** aniztasun funtzionalari eta pertsonen bizitzan eragin dezaketen hainbat afekziori buruz.
- **Lan-merkatuan bereizkeriari amaiera ematera zuzendutako ekintzak sustatzea** Enplegu Zerbitzuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.
- **Desgaitasuna duten pertsonen bizitza autonomoa errazteko neurriak ezartzea** pertsona horiek ordezkatzeko dituzten kolektibo eta elkarten eskutik, pertsona horien parte-hartzea ere sustatuz.
- **Zeinu-hizkuntzak aitortzen dituen eta ahozko komunikazioan laguntzeko neurriak arautzen dituen 27/2007 Legea toki mailan garatzea**, gorren, entzumen-desgaitasuna dutenen eta gor-itsuen erabateko inklusioa lortzeko.

## GAZTERIA

Proiektu sozialistarentzat, **gazteak dira orainaren, etorkizunaren eta aurrerabidearen ardatz**. Ildo horretan, euren bizitza-proiektua **garatu ahal izateko aukerak** eskainiko dizkieten politika zehatz eta zeharkako batzuk sustatuko ditugu. **Sektore kalteberenei arreta handiago** eskainiz egingo dugu, alor horretako neurriak hartuz hezkuntzan, enpleguan, etxebizitzan, informazioan eta udalerrriaren bizitzako parte-hartzean.

Horregatik guztiagatik:

- Gazteei **laguntzeko ekintzak prestatuko ditugu**, eragiten dieten **gai nagusietan buruan egon daitezten**: enplegua eta etxebizitza, emantzipazioa, hezkuntza edo udalerriko bizitzan parte hartzea.
- **Prestakuntza eta enpleguko udal planak egingo ditugu** eta udal baliabideak eskainiko ditugu lana bilatzen eta ekintzaitzian laguntzeko.
- **Gazteei enpresak sortzen lagunduko diegu**, prestakuntza eta aholkularitza eskainiz.
- **Haurren eta nerabeen parte-hartze programak indartuko ditugu**, talde horiek euren iritzia eman dezaten Udalaren jardueren gainean.
- **Gazteei iritzia eskatuko diegu hiriaren kultura-programazioa egiteko**, bai Andre Mari Zuriaren jaietarako, bai Gabonetarako edo udal antzokien programaziorako.
- **Gazte Bonu bat sortuko dugu** ikuskizunetara eta udal zerbitzu eta instalazioetara eskura dagoen prezio batean joan ahal izateko.
- **Gazteen aisialdirako egitarau bereziak indartuko ditugu** auzoetan.
- **Gazteentzako Informazio Zerbitzua indartu egingo dugu**.
- **Gazte Plan berri bat garatuko dugu** eta hori hiriko gazte guztiengana hel dadin egingo dugu lan, arreta berezia eskainiz kolektibo zaurgarriari.

- **Gazteen elkarte-ehunaren eta Gazteria Zerbitzuaren arteko harreman bultzatuko dugu.**
- **Gazteen Elkargunea sustatuko dugu**, proposamen hauen betetze maila aztertuz seihilero.
- **Gazte elkartegintza bultzatuko dugu**, gazteei protagonismoa emanaz, parte-hartzea sarituz eta baliabide publikoak eskainiz horiek proiektiorako eta proiektuak egikaritzeko.
- **Gazte-ehuna sustatzeko kanpainak bultzatuko ditugu**, aholkularitza, prestakuntza eta material teknikoaren laguntza eskainiz jarduerak eta ekintzak burutzeko.

## KIROLA VITORIA-GASTEIZEN

**Vitoria-Gasteizek kirola maite du eta kirola egiten du.** Ez du jarduera fisikoa entrenamendu eta gaintitze gisa bakarrik ikusten, **hobeto bizitzeko aukera modura** ere ikusten du, hau da, osasuntsuago, **bizitza-kalitate handiagorekin bizitzeko.**

Kirolak **hamaika onura** eskaintzen die **hiriei osasun eta ekonomia** arloan, eta baita beste hainbat arlotan ere. Horrenbestez, gure hiriburuak alor horretan dituen **tasunak aprobetxatu** behar ditugu –kirolzale kopuru handia, instalazio ugari, berdeguneak–, alde batetik, gure auzokideen **osasuna hobetzeko**, eta, bestetik, kirolaren bidez **bisitariak erakarri** eta, hala, diru-sarrerak sortzeko gure enpresa eta dendentzat.

Ildo horretan, hauxe proposatzen dugu:

- **Jarduera fisikoa garatzeko pentsatutako espazio publikoaren hirigintza eta diseinu bat jorratzea**, pertsonen osasuna hobetzea ahalbidetuko duena.
- **Vitoria-Gasteiz kirol hiri gisa sustatzea, erreferente bihurtuz** aire zabaleko kirolak egiteko: Eratzun Berdea, aire libreko kirol instalazioak, pasealekuak, parkeak, etab.
- **Osasuna hobetzeko kirola egitea sustatzea**, osasun mentalerako ere gure aliatu onenetakoa izateaz gain.
- **“Kirol juntadizoen” programa bat jartzea martxan**, hilero parke edo espazio publiko batean bilduko dituen kirol-modalitate bateko zaleak. Herritar guztientzat kirola sustatzeko eta jarduera fisikoaren bidez jendea ezagutzeko abagune aproposa izan dadila nahi dugu.
- **Adinekoei** zuzendutako **osasun-parke berriak jartzea**, ariketa fisikoaren bidez zahartze osasungarri batez goza dezaten.
- **Kirol-instalazioak hobetzea.**
  - Antzinasunagatik edo erabileragatik esku-hartze baten beharrean diren udal **kiroldegia egokitzea.**
  - Betoñu eta Olanboko esparruak hobetzeko berriazko **jarduketa-plan bat prestatzea.**

- Ariznabarrako aire libreko **patinajeko pista eraberritzea.**
- Ariznabarrako kiroldegiko **gimnasia artistikoko sakon-unea berritzea.**
- Lakua-Arriaga futbol zelaiko **aldagelak berritzea.**
- Udal futbol zelaietan **soropil artifiziala pixkanaka aldatzen jarraitzea.**
- **Ariketako gelak indartzea**, espazio zabalagoak jarriz eta horrelakorik ez duten instalazioetan jarriz.
- **Bisitariak** ekartzen dituen eta **jarduera ekonomikoa** sortuko duten **goi-mailako kirol proben antolaketa sustatu**, zabaldu eta erraztea; baita elkarteen esparrutik guztien mesedetan sustatzen direnak eta herritarren artean ohitura osasuntsuak bultzatzen dituztenak ere.
- **Hiriaren kirol eskaintza indartzea**, federazioekin eta elkarteekin elkarlanean.
- Klubak eta federazioek udal **kirol espazioak erabiltzeko plangintza hobetzea.**



## ANIMALIEN ONGIZATEA

Gasteiztarren artean geroz **kezka gehiago sortzen du animalien ongizateak**. Udal ekintzaren barruan egon behar du **animalien eskubideak bermatzea**.

Horregatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- "Zero animaliak abandonatu" eta animalien adopzioarako **kanpainen garapena bultzatzea**, animalia ikusezinak ahaztu gabe: zaharkitutako txakurrak, gaixo kronikoak, desgaitasuna dutenak, etab.
- Animaliekin elkar bizitzeari buruzko **informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak sustatzea**.
- Txakurren eta katuen adopzioa sustatzen duten eta Vitoria-Gasteizko udalerrian kaleko katu-aldrak kudeatzen lan egiten duten **animaliak babesteko elkarteekin kolaboratzea**.
- Animaliak zaintzen arduratsuak izaten ikasteko **jarduerak eta programak garatzea ikastetxeetan**.
- **Txakur-parkeak jartzea** hiriko auzoetan.
- Armentiaiko **Animalien Babeserako Zentroa berritzeko lanekin jarraitzea**, bertako tokiak zabalduz eta egokituz animaliek baldintza hobeagoak izan ditzaten.

## LANKIDETZARAKO GARAPENA

**Lankidetzazko politika publiko sendo eta kalitatezkoan sinesten dugu**, finantzaketarako baliabide egonkorrekin. **Justizia sozialarekin eta aberastasunaren birbanaketarekin konprometiturik** gaude herritarren, bere erakundeen eta gizarte-antolakundeen aurrean. Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lerrotaturik den garapenerako **lankidetzazko politika** bat lantzeko konpromisoa hartzen dugu, **elkartasuna** eta **giza eskubideak** izango direlarik bertan oinarritutako printzipioak.

Horregatik:

- **Genero berdintasuna izango da** Udalak garapenerako lankidetzazko burutuko dituen jardueren **zeharkako lerroa**, helburua nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna izango duen proiektu eta programekin.
- **Etorkinen elkarteekin edo kolektiboekin lankidetzazko ekimenak bultzatuko ditugu** euren jatorriko tokietan, euren komunitateetan eta hiriko kolektiboetan garapenerako eragile gisa dituzten gaitasuna indartuz.
- **Etorkinen errealitatearen ikusgarritasuna hobetzen** eta Vitoria-Gasteizko hiritarrek bizikidetzazko lagunduko duten programetan **kolaboratuko dugu**.
- Udalaren **diru-sarreraren aurrekontua %0,7 eta %1 bitartean** lankidetzazko zuzentzeko nahikoa zuzkidura ekonomikoa **gaituko dugu**.
- **Garapenerako gobernu kanpoko erakundeekin** (GGKE) **koordinatzen jarraituko dugu**, eta baita Euskadiko GGKE Koordinadorearekin ere, proiektuen eraginkortasuna eta helburuen lorpena hobetzearren.
- **Euskal Fondoa** - Lankidetzazko Tokiko Euskal Erakundeen Elkartearen **geuk parte hartzea sustatuko dugu**.
- **SEADen Lagunen Elkartearekin** 1995etik 2020ra bitartean indarrean izan den **hitzarmen-esparru iraunkorra garatuko dugu**, jarraipena emanez 2021-2024 aldirako izenpetutako protokoloari.

- **Arabako Larrialdiko Funtsaren** koordinazioa eta zuzkidura ekonomikoa **indartuko dugu**, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- **Kolaborazioak garatuko ditugu lankidetzan arloan** Aguas Municipales de Vitoria S.A. (AMVISA) bezalako udal zerbitzuekin eta beste erakunde batzuekin, estatukoekin zein erkidegoetakoekin.
- Toki ikuspegia-ikuspegi globala **finkatuko dugu, Hegoa deiturikoaren errealitateak ikusgai jarrita**, toki ezberdinetako eragileen artean elkartrukeak eta topaketak sustatuz Iparra-Hegoa arrakala murrizteko; batik bat, pobrezia mailari, gizarte-bidegabekeriari eta giza eskubideen urraketari dagokionez.
- **Bidezko Merkataritza Arduratsuaren sarea sustatuko dugu** "Zentzuz" sarearekin elkarlanean arituta.
- Udalaren **Erosketa Publiko Sozialki Arduratsu eta Iraunkorra sustatuko dugu**, oinarritzen den udal-jarraibidea indartu eta eguneratuta.
- **Jarduera-ildo berri bat garatuko dugu iraunkortasun ekologikoaren eta klimaren aldeko ekintzaren esparruan**, ingurumena, natura eta biodibertsitatea defendatzea, babestea eta zaintzea, baliabide naturalen kudeaketa eta klimaren aldeko ekintza bezalako eremuetan programak lehenetsiz.



**Bizitzeko hiria**  
**Parte-hartzailea eta memoriaduna**



## HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA GARDENTASUNA

Sozialistek **lidergoan, adostasun politikoan eta zeharkakotasunean oinarritutako parte-hartze hiritarra** sustatu izan dugu, Udalean konfiantza handiago sortzeko, **erabakiei zilegitasun handiago emateko eta** erakundea herritarrei irekiago egoteko helburuarekin.

Azken urteotan, udal talde politiko ezberdinen arteko akordioan oinarritutako **parte-hartze sistema** bat garatu izan dugu Vitoria-Gasteizko Udalean, ebaluazio-sistema zorrotz batekin, tokiko kudeaketa publikoan herritarren parte-hartzearen kalitatea eta eragina hobetze aldera. Horren erakusgarri da azken legegintzaldi honetan egikaritu izan den Herritarren Parte-hartzerako 2019-2023 Udal Plana.

Datorren legegintzaldiari begira, berriz, **parte-hartzearen politikan aurrera egiteko** konpromisoa hartzen dugu. Era horretan:

- **Parte-hartzerako Udal Plan berri bat bultzatuko dugu** eta ebaluazio-sistema bat garatzen jarraituko dugu, kanpoko ikuspegi independente baten laguntzarekin (UPV-EHUrekin lankidetzan), horren jarraipena eta egungo errealitate aldakorrerako horren egokitzea bermatzeko.
- **Herritarren parte-hartzea sustatzeko kanpainak egingo ditugu**, bereziki kolektibo zaugarrientzat eta gazteentzat, auzuneetan, elkargunetan eta Gizarte Kontseiluan.
- **Parte-hartzearen kultura sustatu eta indartuko dugu** Herritartasunerako Eskola Irekiaren bidez.
- **Gazteak eta haurrak engaiatuko dituzten ekintzak sustatuko ditugu.**
- **Herri-batzarrak sartuko ditugu** parte-hartze politiketan, **zozketa bidez izendatutako pertsonak eratuta egongo direnak, eta baita berrikuntza publikorako laborategiak ere.**
- **Vitoria-Gasteiz Hobetuz** aurrekontu parte-hartzailearen **programa indartuko dugu**, aurrekontu handiago esleituz datozen urteetan.
- **Babes irmoa emango diogu elkarteen ehunari**, aholkularitza ematea, espazioa, materialak eta baliabideak erraztuz hiriaren interesekoak izango diren proiektu komunitarioak garatzeko.

- **Parte-hartze Zerbitzuak** kalitateko prozesu parte-hartzaileen garapenean gainerako udal sailekin duen **lankidetzaz indartuko dugu.**
- Udalaren sailek webguneko gardentasun atarian eskuragarri den **informazioan kantitate eta kalitate** handiago egotea **sustatuko dugu.**
- **Politika publikoen garapen eta betetze mailari buruz online jarraipena egiteko tresnak** hobetuko ditugu.



## **ERALDAKETA DIGITALA ETA HERRITARRENGANAKO ARRETA**

**XXI. mendeko erronkei heldu** nahi dion Administrazio batek **eraldaketa digitalaren** eskutik heldu beharko lioke, eraldaketa digitalizat ulertuz herritarren mesedetan **teknologiak duen potentziala eta balioa aprobetxatzeko** antolaketan emango den aldaketa.

Sozialistentzat giltzarri da eraldaketa digitalaren prozesu horretan behar diren **baliabide eta ezagutzak jartzea**, bereziki, **arrakala digitalaren** ondorioz arretako kanal elektronikoan eroso sentitzen ez den herritar horientzat, dela ez duelako hori erabiltzeko ezagutzarik, dela ez duelako horretarako behar den teknologiarik. Hori guztia, usadiozko arreta-kanalak ahaztu gabe, hots, aurrez aurrekoa eta telefono bidezkoa.

Datorren legegintzaldiari begira, eraldaketa digitalerako bidean **herritarren eskura baliabideak eta tresnak jartzen segitzeko** konpromisoa hartzen dugu.

Horregatik:

- **Herritarren karpeta bat aktibatuko dugu**, jendea bere espedienteetara sar dadin bertan eta bere espedienteen izapidea zer egoeratan den jakin dezan.
- **Administrazio elektronikoa garatu eta hobetuko dugu.**
- **Hobetu egingo dugu herritarrenganako arreta** omnikanalitate-plan baten bitartez, udal informazio eta izapiderako arreta ezberdinak (aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta online) era integrarean garatuko dituen.
- Herritarren arretarako bulegoetan **nork bere izapideak egiteko zerbitzu berriak jarriko ditugu**, izapide errazten azkartzeko eta itxaronaldiak saihesteko.
- Herritarren laguntzarako **telefono bidezko arreta-zentro bat jarriko dugu abian** online izapideak egiten laguntzeko.
- Online izapideak egiteko **ziurtagiri digitalak igortzeko kanpaina zehatz** bat prestatuko dugu.
- Bitarteko telematikoen erabileran **herritarrentzako prestakuntza-espazioak eskaintzearen alde egingo dugu**, arrakala digitala murrizteko asmoz.

- **010 telefonoa doan izatea bultzatuko dugu.**
- **Lizentziak ematearekin lotutako udal izapideen analisi integral bat egingo dugu**, horiek emateko burokrazia murriztera eta izapideak eta epeak laburtzera zuzendutako plan bat egiteko.

## GIZARTE-ETXEAK

Sozialistek **bultzatzen jarraituko dugu** Vitoria-Gasteizko gizarte-etxeen eta kirol-instalazioen **sare zabala, gizarte-kohesioa, kultur jardueraren sustapena eta hiriko bizilagunen kirol-ohitura osasuntsuak bermatzen dituztenak.**

Gure sarea erreferentea da mundu mailan ekipamendu integratuen arloan. Hiri askok begiratzen diote Vitoria-Gasteizi ekipamendu mota horiek abian jartzeko adibide gisa. Hiri osoan zehar banatuta daudenez, auzo guztiei zerbitzu ugari emateko aukera eskaintzen dute.

Gizarte-etxeak **sendotu** nahi ditugu, bai ekipamenduak, bai horietan eskaintzen den **kultura-, kirol- edo gizarte-programazioa** hobetuta.

Horregatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gizarte-etxeak **mantentzeko jarduerak indartzea**, antzintasun handiena eta eraberritzeko premia handiena dutenak lehenetsiz, jardueretan kontuan hartuz eraginkortasun energetikoa eta jasagarritasuna
- **Iparalde Gizarte Etxearen eraberritze integrala bultzatzea.**
- Gizarte-etxe bakoitzaren **jarduera-eskaintzen azterketa bat egitea** behar den gauzetan berritzeko, auzoen ezaugarrientzat egokiak izaten jarrai dezaten.
- **Doako kultura-jardueren programazioa indartzea.**
- Topagunetako, doako jolas-lekuetako eta ludoteketako erabiltzaileei eskaintzen zaizkien material ludikoen, kulturalen zein heziketakoen **eskaintza hobetzea eta eguneratzea.**
- **Gizarte-etxeetako kafetegietako eskaintza aztertzea**, behar izanez gero doitzeko eta egokitzeko, nutrizio aldetik egokia eta askotarikoa izateaz gain gizarte-etxeetako erabiltzaile gehienentzat aproposa izan dadin. Hori guztiori, elikadura-intolerantziak kontuan izanez, batik bat arruntenak: glutena eta laktosa.

- **Gizarte Etxeetako Jardueren Topaketa bat antolatzea** urtero, auzo bakoitzean egiten den programazioa batera jartzeko eta partekatzeko.
- **Udako Haur Parke bat abian jartzea.**
- **Elkartegintzaren** eta Eskualde Zentroen **jarduerari ematen zaion bultzada eta babesa hobetzea.**

## KULTURA

Proiektu sozialistak **gure kulturaren aberastasuna indartu** nahi du, **adierazpide-mota ezberdinak sustatuz eta dagoen ondarea zainduz**, kultura arloan dugun potentziala ikertu eta ustia dezagun.

Herritar guztien ondare bezala ulertzen dugu kultura, eta **jendarte baten eskubide gisa**, aginpidean dauden erakundeek **eskaini eta zaindu behar dutena**. Kultura **behar-beharrezko ondasun** gisa. Sekula baino kultura biziagoa.

Alderdi Sozialista da kultura behar-beharrezko ondasun izatearen bermea **herritarrekin, hiriko kultura-eragileen eskutik**.

Hori dela eta, **kultura jarri nahi dugu** Vitoria-Gasteizko Udalaren **estrategia globalaren erdigunean**.

Gure politiken bidez, kultur ekipamenduak, kultur programazioa eta kultur zerbitzuak indartuko ditugu sozialisten eskutik:

- **Principal Antzokia eraberrituko dugu**, osorik modernizatuz baina bere kutsu klasikoari eutsita.
- **Iradier Arena egokitu egingo dugu** ekitaldiak egiteko erabilera antzeko espazio gisa, eta hiriko bigarren kultur ekipamendua izango da.
- **Gizarte-etxeetako ekitaldi-aretoen eta antzokien modernizazioa eta hobekuntza** teknikoa **sustatuko dugu**. Horietarako sarbidea eskainiko diogu sektoreari, euren sormen artistikoak martxan jar ditzaten.
- **Dantza eta Musikaren Udal Eskola sortuko dugu**, Udal Dantza Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren eskuetara aldatzen denean. Geure gain hartuko dugu dantzaren irakaskuntza ez-arautua eta "Luis Aramburu" Udal Musika Eskola kuttunean txertatuko dugu. Era horretan, oso eskari handiko diziplina bat eskaini ahalko diegu herritarrei: antzerki musikala.
- **"Gasteiz Art" programa sustatuko dugu** Antzerkien Udal Sarearekin, Udal Folklore Akademiarekin, "Luis Aramburu" Udal Musika Akademiarekin eta Udal Dantza Eskolarekin elkarlanean, herritarrek eskatzen dutenaren pare egongo den programazio bat egiteko.

- **Montehermoso Kulturunea sustatuko dugu,** talentuaren, sormenaren eta berrikuntzaren aldeko apustu eginez.
- Herritarrak **Andre Mari Zuriaren jaietako programazioa egiten parte hartzera bultzatuko ditugu.**
- **Usadiozko jaiak berreskuratzea eta mantentzea bultzatuko dugu:** Gabonak, San Anton, Agate Deuna, Inauteriak edo Olarizuko erromeria.
- **Europako Kulturaren Astea sortuko dugu,** hizkuntza- eta kultura-aniztasuna sustatzeko.
- **Literatura Astea jarriko dugu martxan.**
- Vitoria-Gasteiz **erreferente** bihurtuko duten **kultur programen alde egiten jarraituko dugu,** esaterako Kaldearte edo 'Kazetaritza, bertatik bertara'.
- **Espazio publikoaren aldeko apustuarekin jarraituko dugu** kultur jarduera eta adierazpideak garatzeko agertoki gisa.
- **Udako eta aire libreko kultur programazioa zabaldu egingo dugu** auzoetan.
- **Gizarte-etxeetako eta auzoetako kultur jarduera indartu egingo dugu,** Kultur Ikastaroen eta Praktika Artistikora Hastapen Ikastaroen hezkuntza-programazioaren bitartez, eta baita arte eszenikoetako eta sormenezkoa ere FotoArte, Butaka Txikia, Dibertikale, Auzo Eszena eta beste berri batzuen gisako programekin.
- **Udal Liburutegi Publikoaren Sarerako funtsak eskuratzea** eta sareko kultur programazioa **indartuko dugu,** irakurtzeko ohitura errotzeko eta ikastetxeak eta familiak ohitura horretan inplikatzeko.
- **Udal Artxiboko funtsak katalogatzeko eta digitalizatzeko lanarekin jarraituko dugu,** eta herritarrei eta ikastetxeei zuzendutako zabalpen-ekintzak prestatuko ditugu. Artxiboari programazioa jarriko diogu, ikusgarriago jartzeko.

- Hiriko **kultur eta sormen sektoreko erakundeek kudeatzen dituzten proiektuentzako laguntza finkatuko dugu** kultur diru-laguntzen deialdien bidez.
- **Kultur ikuspegia txertatuko dugu bizitzan zeharreko ikaskuntzan**, bai Hiritartasun Eskolaren programen bidez, bai Hiri Hezitzailearen bitartez.
- **Vitoria-Gasteizko Kultura Plan Estrategiko berriaren helburuak beteko ditugu** eta Kulturako Elkargunearekin lankidetzan arituko gara horren betetzea aztertu, planifikatu, hezurmamitu, egituratu eta, batez ere, aztertzeko.

## HEZKUNTZA

**Vitoria-Gasteiz** Hiri Hezitzailea da, eta bere egiten ditu **Europako Hiri Hezitzaileen Gutunean hezkuntza-ekitaterako** eta iraunkortasunerako zehazten dituen **konpromisoak**, herritarren prestakuntza-maila eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

Hezkuntza hizpide dugun bakoitzean, hezkuntzarako **aukera-berdintasuna** eta **ikasle guztiek eskolan arrakasta izatea** da sozialisten helburua.

Ondorioz, gure lan-ildo nagusietako bat **segregazioaren fenomenoaren kontra egingo duten neurrien sustapena** jarraitzen du izaten, hori baita gure hezkuntza-sistemaren **desberdintasun-foku** nagusia.

Horren harira, sozialistek hauxe egiteko konpromiso hartzen dugu:

- **Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa (2023-2030) garatu**, hori izango denez hezkuntza arloan udal estrategia ardaztuko duen oinarria.
- Hezkuntzan eta, bereziki, ikastetxeetako gobernu-organoetan **gurasoek parte har dezatela sustatu**.
- **Ikasleen Guraso Elkarteen (IGEak) sendotzeko programak garatu eta zabaltu** eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko orduan, familiek ikastetxeetan parte hartzera sustatzeko xedeak akuilatuta.
- Ikastetxeetako **IGEetan jardunbide onen** inplementazioa eta ezagutza **sustatu**.
- **Urrakortasun bereziko egoeran diren ikastetxeek** bertan gurasoak parte hartzera bultzatzen dituzten IGEak sortzeko **laguntza-programak indartu**.
- **Eremuko eskolaz kanpoko planak zabaltu**. Salburuan esperientzia pilotu gogobetegarria izan dena hiri osora zabalduko da.



- Vitoria-Gasteizen **hezkuntza inklusibo bat izatearren egin lan**, hiriaren eskola-maparen eta ikastetxeen premia berezien eta urrakortasun egoeren gaineko jarraipen bat egingo dugularik.
- **360 graduko begiradarekin hezi.** Udal organoetatik jorratzen den **esku-hartzea Hiri Hezitzaileen Gutuneko erronka eta lehentasunekin** eta tokiko hezkuntza-sareak agertzen dituen premiekin **bat datorrela bermatu.**
- **Udal Eskola Kontseiluarekin batera egin lan**, jarduera-ildo nagusienak partekatuz eta adostuz.
- **Hezkidetzako udal estrategia bat garatu.** Hiriko ikastetxeen eta gizarte- eta hezkuntza-eragileen eskura jarriko dugu informazioa nahiz bitartekaritza, besteak beste, honako alderdi hauei buruz: eskolaz kanpoko jarduerak, nesken ahalduntzea, euren bokazio tekniko eta zientifikoa barne dela, hezkidetzako patioak, eta indarkeria matxistaren prebentzioa.
- **Eskolako patioak naturalizatu**, toki inklusiboak, berdintasunezkoak, iraunkorrak eta naturalak izan daitezzen; elkargune izan daitezzen.
- **Zientziaren Astea martxan jartzea bultzatuko dugu.**
- **Udal hezkuntza-programak zabaltu eta indartu** ikastetxe gehiagotara hel daitezzen, ikasle zaugarriak dituztenetara, batez ere.
- Familiei zuzendutako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiarenekin **prestakuntza-programak sendotu eta zabaltu.**

## GASTEIZ EUSKARAZ

Sozialistek geure egin izan dugu beti **euskararen erabilera zabaltzen joateko** helburua eta horren berreskurapena ahalbidetu duten itun eta legegintza mailako aurrerapen guztiak bultzatzen egon izan gara.

Euskararen erabilera gizartean sustatzeko modurik onena, egiaz, hori erakargarri bihurtzea da, **erabilera berezko, natural eta malgurako aukerak sortzen dituzten formulak sustatzearen bidez. Beti egon izan gara inposizio-neurrien aurka**; bidegabeak izateaz gain, ikusi izan da ez direla eraginkorrak, bizilagun sektore batzuen borondatearen eta gaitasunaren kontra doazelako.

Proiektu sozialistatik, gasteiztarren **euskalduntzean urratsak ematea planteatzen dugu.**

Horretarako:

- Herritar guztien **hizkuntza-eskubideak sustatu eta babestuko ditugu**. Aukera-berdintasuna zainduko duten eta laneko eskubideak, eskubide sozialak eta hizkuntza-eskubideak uztartuko dituzten neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Herritarrek Administrazioarekin harremana** edozein hizkuntza ofizialetan izaten laguntzeko **egingo dugu lan**.
- **Sektore pribatuarekin kolaboratuko dugu** euskararen erabilera sustatzeko, pizgarriak eskainiz horren erabilpenerako hainbat proposizio-, prestakuntza- eta kontzientziazio-ekintzen bidez.
- **Gasteiz Antzokia Euskararen Etxea delakoa euskararen erreferente** eta dinamizatzaile **bihurtuko dugu** gure hirian, inplikaturako eragileekin batera.

## **MEMORIA DEMOKRATIKOA ETA HIRIAREN MEMORIA**

Sozialistek **Vitoria-Gasteiz memoriaduna eraiki** nahi dugu. Memoria demokratikoarekin, **bizikidetzarako oinarri sendo batzuk ezartzeko**, eta hiri-memoriarekin, **gure historia eta aurrera nola egin dugun jakiteko**.

Horregatik, hauxe proposatzen dugu:

- **Bizikidetzeta eta Aniztasun Plana berregitea**, bi plan bereizirekin aniztasun eta memoria kontuetarako.
- Iraganeko indarkeria politikoaren errealitateari buruzko **Memoria eta Bizikidetzeta Plan berriazko bat sortzea**, ETAK eta horrek Vitoria-Gasteizi ekarri izan diona zehazki aipatuz, eta baita deslegitimatutako beharrek beste erakunde batzuk egindakoa ere.
- Memoria demokratikoaren lantaldeko konklusioetan zehaztutako kaleei **testuingurua eranstea**.
- **Memoria demokratikoaren ibilbide bat sortzea** gure hirian, datozen belaunaldiek jakin dezaten indarkeria politikoak nola eragin zien gasteiztarren egunerokoari.
- Martxoaren 3ko biktimen memoria-zentroa errealitate bihurtzeko **eskuz esku lan egitea eskumendun erakundeekin eta herritarrekin**.
- **Museo-espazio bat sortzea hiriaren memoria zabaltzeko**, toki garrantzitsua beteko duelarik **XX. mendeko 50-60 urteetako Vitoria-Gasteizi eskainitakoak**, hiriak bere hazkunde demografiko nola industrial itzela bizi izan zuenean Espainiako beste probintzia batzuetatik etorritako migratzaileei esker.
- Gazteei zuzendutako **komiki erabilerraz bat egitea**, Vitoria-Gasteizen historia kontatuko duena, sortu zenetik hasi eta XXI. menderaino.
- Vitoria-Gasteizen historia ikertzeko eta zabaltzeko xede duten **proiektuak, argitalpenak edota lan akademiak laguntzea eta sustatzea**. Ikerketarako laguntza-ildo bat bultzatuko dugu gure hiriaren historia zabaltzera zuzendutako proiektuentzat.

**Bere auzoei begirätzen dien hiria**  
**Vitoria-Gasteiz, auzoz auzo**



## VITORIA-GASTEIZ, AUZOZ AUZO, KALEZ KALE

Sozialistok garbi dugu zer nahi dugun: **hiri atsegina, garbia, irisgarria, ingurumenarekiko begirunetsua, kultura askotarikoa eta inklusiboa**, herritarrak eroso eta seguru bizitzeko modukoa, edozein dela ere euren bizilekua.

Horretarako, hiri garbi bat izatea nahi dugu eta halaxe defendatuko dugu, landaredia baldintza ezin hobean dela, bizilagunek berdegunez gozatzeko aukera izan dezaten, ez dadin egon horretarako oztoporik.

Hori lortzeko, indartu egingo dugu **inausketaren** zerbitzua, kendutakoak ordeztuko dituzten zuhaitzak jartzeko plan bat aztertuko dugu, txorakoak garbi eta egoera onean zainduko ditugu eta kontrol zorrotza eramango dugu **garbiketaren** kontratua bete dadin.

Gure lehentasunen artean egoten jarraitzen du **argiteria hobetzea**, eta argiteriaren esku-hartze plan bat jarriko dugu martxan. Hobetu egingo dugu **bide publikoaren zainketa, espaloi eta bideen eta haurrentzako parkeen egoera**, askotan ez direlako batere egoera onean. Horiek hobetzea da gure helburua.

Haurrak eta gazteak, helduak zein adinekoak gustura sentituko diren eta euren adinaren araberako espazio eta zerbitzuak izango dituen Vitoria-Gasteiz bat nahi dugu. **Osasun-parke berriak** gaituko ditugu eta egoera onean mantenduko ditugu **haurren jolastokiak**. Horrez gain, **estalitako tokiak** sortuko ditugu, belaunaldien arteko elkarketa-guneak eskaintzeko.

Oso argi dugu **auzoak hiri direla**, eta horietako bakoitzak, bere jatorri eta berezitasunak gorabehera, baliabide nahikoa izan behar duela bertako bizilagunen bizitza errazagoa izan dadin. Gure apustua argi eta garbia da: **auzo bizidunak** nahi ditugu.

## ABETXUKO

- Auzorako **irisgarritasuna** hobetzeko jarduketa-plan bat **prestatuko dugu**.
- **Trafikoa lasaitzeko plan bat egingo dugu**, oinezkoen segurtasuna hobetuko duena.
- **Urratsak emango ditugu** Ancora proiektua sendotu eta egikaritzen.
- **Berritu egingo dugu** Presa kaleko parkea, haur-jolastoki berri bat jarri eta hiri-altzari gehiago jarrita.
- **Hobetu egingo ditugu** Iturrizabala eta Arragana kaleen arteko espaloiak eta Azeduia eta Zadorra arteko eskaillerak.
- Errotonda bat **jarriko dugu** Iturrizabala kale amaieran, ibilgailuen irteera errazteko.
- Seinaleak **jarriko ditugu** auzoaren sarreran, kale nagusiak adierazten dituela.

## ADURTZA-SAN KRISTOBAL

- **Biziberritze integraleko eta sozialeko Plan bat egingo dugu** Adurtza eta San Kristobal auzoetarako, auzoko kolektibo eta elkarteekin elkarlanean.
- **Igogailu bat jarriko dugu San Kristobal zubiaren eta Txistulari kalearen artean** den desnibela libratzeko.
- **Zendaguren eta Flandria kaleen eraberritzeen proiektuak egingo ditugu**.
- Maurice Ravel Lorategiaren espazio bat karpa batekin **estaliko dugu**, eta mahaia, eserlekuak eta jolastokiak jarriko ditugu bertan.
- **Adurtzako eta Zumakadiko plazatzoko parkeak birgaitu egingo ditugu**.
- **Hobetu egingo dugu espazio publikoa**, egoera txarrean dauden espaloiak, galtzadak eta bidegorriak **asfaltatuz** eta bertako hiri-altzariak berrituz.

- **Bizikletentzako aparkaleku estali gehiago jarriko ditugu**, eta egoera onean ez daudenak konpondu egingo ditugu.
- **Berdegune gehiago sortuko ditugu.**
- **Hobetu egingo dugu Oreitiasolo industrialdea Raimundo Olabide kalearekin lotzen duen hiri-bilbea**, kalitate handiagoko espazio publiko bat jartzeko, eta Jose Maria Iparragirre kaleko espaloiak berritu egingo ditugu.
- Auzoan dauden **goi-tentsioko dorreak kentzeko** plan bat **adostuko dugu** Iberdrolarekin, Izarbenta kalean, esaterako.

## **ARANA, ARANBIZKARRA ETA ARANTZABELA**

- Aranbizkarra kalean **Ignacio Aldecoa Ikastetxe Publiko zaharraren eraikina erabiltzeko** proiektu bat **idatziko dugu**, gizarte- eta hezkuntza-aprobetxamendurako.
- **Arantzabelako plaza zaharra eta Arana parkea eraberritu egingo ditugu.**
- Leon, Zalburu, Aranbizkarra, Arantzabela, Extremadura, Asturias eta Txiribia kaleetako **aireko linea kendu egingo dugu.**
- **Zebra-bide garai bat jarriko dugu** Done Jakue hiribidetik Andaluzia kalera sartzen diren ibilgailuen abiadura mugatzeko.
- **Bizikletentzako aparkaleku gehiago jarriko ditugu.**
- **Hiri-altzariak aldatzea aztertuko dugu**: paper-ontziak, iturriak eta eserlekuak.
- **Esku-hartzeak egingo ditugu** Aranbizkarra, Txiribia, Leoncio Garnier eta Andaluzia kaleen artekoa eta Gurutze Berdeko kaleetako hiri-irudia eta irisgarritasuna hobetzeko.
- **Done Jakueren iparraldeko espalo** hondatua, Judimendi hiribidearen eta zubiaren artekoa, **berritu egingo dugu.**



- **Asfaltatu egingo ditugu** egoera txarrean dauden Judimendi eta Done Jakue hiribideetako, Gurutze Berdea eta Asturias kaleetako, San Jose plazako eta Galizia kalearen plaza inguruko azalerak.



- **Azterlan bat aginduko dugu Madril kalearen eta Arana parkearen eta Salburuaren arteko lotura hobetzeko.**
- Madril kaleko 2. zenbakitik 18. zenbakira bitarteko eta Betoñuko Atearen 6. eta 8. zenbakietako **atarietako irisgarritasuna hobetzeko proiektua egingo dugu, eragiten dieten jabe-komunitateekin elkarlanean jardunez.**
- **Barruko lorategi eta plazak hobetuko ditugu** Pedro Ignacio Barrutia edo Madril bezalako kaleetan.
- **Legutioko Atea eraberritzeari ekingo diogu,** Nafarroako Errege-erreginen kaletik hasi eta Madril kaleraino.

## ARIZNABARRA

- Ariznabarra kalea **konpondu egingo dugu** futbol zelaitik elizara bitartean.
- Kexaako Gazteluaren kalean dagoen petanka eremua **birmoldatu egingo dugu,** eta zabuak eta altzariak jarriko ditugu bertan.
- **Pergola bat jarriko dugu** Kexaako Gazteluan den plazan, San Jose Ikastetxearen atzealdean, ekitaldietarako agertoki batekin eta harmailekin.
- Ozioko Gazteluaren kalean **bizikletentzako aparkaleku gehiago jarriko dugu.**
- Fontetxako Gaztelua kalearen eta Ozioko Gazteluaren kalearen arteko bidegurutzean gidarien segurtasuna bermatzeko **trafikoko neurriak aztertuko ditugu.** Halaber, auzoko galtzada eta bidegorrietako seinalizazioa hobetu egingo da.

- **Teodoro Gonzalez de Zarate** eta Kexaako Gazteluaren kalearen artean **errotonda** bat eraikitzeke azterlan bat **egingo dugu**, Zabalzana eta Ariznabarrako ibilgailuen etorrera errazteko.
- **Adinekoentzako osasun-parke bat jarriko dugu** Prado parkean.



## ARRIAGA-LAKUA, LAKUABIZKARRA ETA IBAILAKUA

- **Voluntaria Entrega** kalearen **eraberritzearen** bigarren fasearen **proiektua egingo dugu.**
- **Berritu egingo ditugu** Alfontso XI. kaleko plazak, eta **agorespace** bat jarriko da erdiko plazan.
- Eskualde zentroen inguruan dauden lurzoruen egoera **hobetu egingo dugu.**
- Forondako Atean, Arriaga parkean eta Donostia kalean eserlekuak jartzeko **jarraituko dugu**, eta mahaiak Fernandez de Pinedo parkean.
- Galeoi parkean dauden **areto-futboleko** zorua **aldatu egingo dugu.**
- Sansomendi eta Lakuabizkarra bitartean dagoen **skate parka hobetu egingo dugu.**
- Zadorra etorbidearen eta Donostia kalearen arteko bidegurutzean **bide-segurtasuna** bermatzeko **neurriak aztertuko ditugu.**
- Agirrelanda kaleko espaloiak **berritu egingo ditugu** Pozoa kaletik Zadorra hiribideraino.

## ERDI AROKO HIRIGUNEA

- **Buruileria plaza eraberritu egingo dugu** hondatuta dagoen hiri-altzariak eta lauzadura aldatuta.
- Erdi Aroko harresiaren **begiratoki bat eraikiko dugu** Martín Ttipia plazaren ondoan, hiriaren hegoaldearen panoramika ikusteko moduan.
- Bizikletentzako aparkalekuak **gaituko ditugu** hutsik dauden lonjetan eta komun publikoak jarriko ditugu.

- **Eraberritu egingo ditugu** eraikita dauden espazio libre nagusiak, eserlekuak eta iturriak bezalako altzariak jarrita, eta landare-elementuak sartuko ditugu Erdi Aroko Hirigunea naturalizatzeko.



- **Handitu egingo dugu enpresen mintegia**, horretarako lokal gehiago jarrita.

## KOROATZE

- **Berrikuntzak egingo ditugu Santo Domingo plazan**, inguruko auzokideekin adostuta, auzoko jarduerak egin daitezzen bertan.
- Auzoko eremu bakoitzaren premiekin bat datozen landare-elementuak **jarriko ditugu**.
- **Zaldiaran** plazaren egoera **hobetu egingo dugu**.
- Domingo Beltran de Otazu kalea, Zitudadela eta Pascual Andagoia plazen bitartekoa, berritzea **aztertuko dugu**.

## PILAR

- Oinezkoen segurtasuna **hobetu egingo dugu** zebra-bide bat jarrita Paraguai eta Puerto Rico kaleen artean.
- **Nikaragua kaleko aparkalekuak** eta ondoko plaza **eraberritzeko eta hobetzeko** proiektua **egingo dugu**.
- Panama eta Venezuela kaleen artean den **petanka-jokoa estali egingo dugu**.

## ZABALGUNEA, LOVAINA ETA BABESGABETUAK

- **San Antonio kalea oinezkoentzat jarriko dugu** Florida eta Alaba Jeneralaren artean, bide atsegino bilakatuz oinezkoentzat eta merkataritza- eta ostalaritza-jarduerarentzat.
- Txakurrentzako parke bat **jarriko dugu**.

- **Urriaren Hamabia, Aiala Kantzileria eta Juan XXIII.** kaleak berritzea aurreikusten dugu.



## ANGLO

- **Herrandarren kalea eraberritzeko** proiektua **garatuko dugu**, eta bulebar berdea izango da.
- Arana eta Logroño kaleen artean den **Palentzia kaleko plazatxoa berritzea aztertuko dugu.**
- **Bizikletentzako aparkaleku gehiago jarriko dugu.**
- Espaloiak, hiri-altzariak eta haurrentzako jolastokiak berritzea **aztertuko dugu.**
- Espazio publikoa **hobetu** eta libratuko dugu bizilagunen gozamenerako, **aparkaleku-eremuak berrantolatuta.**

## GOIKOLARRA

- **Hiri-baratza** komunitarioak **jarriko ditugu.**
- **Haurrentzako estalitako jolastoki ba sortuko dugu**, eta baita *agorespace* diziplina anitzeko kirol-pista bat ere.
- Zuhaitz eta **berdegune gehiago jarriko dugu** bide publikoan.
- A-2124 errepideko **bide-segurtasuna** bermatzeko neurriak **aztertuko ditugu.**
- Auzoaren eta inguruaren beharretarako behar diren **ekipamenduen azterketa** bat **egingo dugu.**

## JUDIMENDI

- **Sefarad plazako** agertokia **estali egingo dugu** bere erabilera areagotzeko eta belaunaldi arteko elkargune bat izateko.
- **Hobetu egingo dugu** kaleen irudia eta irisgarritasuna, **espaloiak** konponduz eta **hiri-altzariak eta berdeguneak** jarrita.

- **Bizikletentzako aparkaleku** gehiago **jarriko dugu**.



- **Lineako aparkalekuak** baterian **jartzea aztertuko dugu**.

## **MENDIZORROTZA ETA LORATEGI-HIRIA**

- Mendizabala kaleko **haur-parkeko** jolastokia **berritu egingo dugu**, eta Tortilla mendi ingurua hobetzeko aukerak aztertuko ditugu.
- Salbaterrabide kaleko **espaloia berrituko dugu**, 46. zenbaki parean.
- Elvira Zulueta kaleko **espaloia** hobetzea **aztertuko dugu**.
- **Batan ibaiaren** eta horren ibaiertzen zainketa **ikuskatuko dugu**.
- **Lasarteko Ateko eta Salbaterrabideko espaloien** egoera **hobetu egingo dugu**.

## **SALBURUA**

- **Judimendi** auzoa **Salburuarekin** lotuko duen eta Gizarte Etxeranzko eta Ekialdeko parkerako ibilera erraztuko duen **oinezkoentzako bide** bat **jarriko dugu**.
- **Txakurrentzako parke** bat **jarriko dugu**.
- Auzoaren beharretarako behar diren  **ekipamenduen azterketa** bat **egingo dugu**.
- **Bide-segurtasuneko neurriak hartuko ditugu** ilara bikoitzeko arazoak saihesteko eta garajeetako irteera errazteko.

## **SAN MARTIN**

- **San Martingo auzo-elkartearen erabilera anitzeko zentroa** **hobetu egingo dugu**, kanpoaldea galtzadatuta.

- **Aparkaleku plaza gehiago sortuko ditugu** Tomas Alfaro Margolariaren kalean, plazak baterian jarrita.
- San Martin parkeko **haurren jolastokia berritu egingo dugu.**
- **Bizikletentzako aparkalekuak jarriko ditugu** Abendaño Ikastolaren haurrentzako eraikin inguruan.
- **Eserlekuak jarriko ditugu** Teodoro Doublang Margolariaren kalean, elizaren eta Udalaren espaloian.
- Abendaño kaleko iturri ingurua, pergolak eta lorategiak **berritu egingo ditugu.**

## **SANSOMENDI ETA ALI**

- **Paula Montal kalea berritu egingo dugu.**
- **Ceferino Urien kalea berritzeko proiektua onartuko dugu** eta hobetu egingo ditugu inguruko berdeguneak.
- **Paula Montal eta Antonio Machado bloke gorrien plazako hezetasun-arazo historikoentzat** behin betiko konponbide bat zehaztuko duen **azterlan tekniko bat egingo dugu.**
- **Agorespace** bat **jarriko dugu** Antonio Machado, Alonso Sarria eta Paula Montal kaleen artean dagoen kirol-lurzoruan.
- Elexalde eta Paula Montal kaleen ondoan eta pisu gorrien plaza barruan dauden **haurren jolasguneen** eraberritze integralari **helduko diogu** eta zabaldu egingo ditugu. Valentin Foronda zidorraren eta Oto hiribidearen artean dagoen haurrentzako jolastokiaren zorua ere hobetu egingo dugu.
- Paula Montal, Antonio Machado eta Valentin Foronda kaleetan eta Wellingtono Dukearen eta Oro hiribidearen arteko zatian **oinekoentzako segurtasuna** bermatzeko **neurriak aztertuko ditugu.**
- Ali-Gobeo industrialdetik etortzen diren **usain txarren isurpena kontrolatuko dugu.**
- **Aparkalekuak** zabaltzeko **alternatibak aztertuko ditugu.**

## SANTA LUZIA

- **Vicente Alexandre kalea eraberritu egingo dugu.**
- **Ricardo Pugaren eta Sutaustegi Zaharren** kaleen arteko **ibilbidea hobetu egingo dugu**, hiri-altzari berriak jarrita.
- **Ricardo Pugako aparkalekua berrantolatuko dugu.**
- Jacinto Benavente kaleko *skate park*aren ondoan den plazari **zer erabilera eman aztertuko dugu.**

## TXAGORRITXU ETA GAZALBIDE

- Don Bela kondearen kalearen **asfaltatzea hobetu egingo dugu**, eta seinaleak eta hiri-altzariak jarriko ditugu bertan.
- Txagorritxuko Haurreskolaren atzealdean dagoen **minigolf eremua eraberritu egingo dugu**, eta **estalitako** elkargune bihurtuko dugu.
- **Eserleku gehiago jarriko ditugu** Honduras kalean, Jesus Guridi Musika Kontserbatorioaren eta Gazalbideko dorreen artean, auzokoen erosotasunerako.
- **Azterlan bat egingo dugu Enrique Eguren eta Telesforo Aranzadi** kaleak eraberritzeko, oinezkoentzako ibilbidea eta merkataritza-jarduera hobetuz auzoko kolektiboen ekarpenak kontuan hartuta.

## ZABALGANA

- Erabiltzen ez diren **udal lonjak** bizikletentzako **aparkaleku estalietan bihurtuko ditugu.**
- **Perretxin ibaiaren** eta horren ibaiertzen **zainketa ikuskatuko dugu.**
- **Hiri-altzarien** eta haurren jolastokien **narriadura saihesteko** beharrezko **mantentze-neurriak gauzatuko ditugu**, txikienen segurtasuna babesteko.
- **Bizikletentzako aparkaleku gehiago jarriko dugu** Bremen kalean.

## ZARAMAGA

- **Zaramaga auzoaren berroneratze integral eta sozialerako egitasmoa garatuko dugu, etxebizitzak era ekologikoan birgaituz, gizarte-baliabideak hobetuz eta espazio publikoa berrurbanizatuz.**
- **Eguneko Arreta Zerbitzua zabalduko dugu** Diego de Rojas kalean.
- Zaramagan **TAO zabaltzea aztertuko dugu.**
- **Legutio Atariko kalea eraberritu egingo dugu** Nafarroako Erregerreginen eta Madrid kaleen artean.
- Zuiako Taldearen, Biasteriko Taldearen eta aldameneko kaleen **espaloiak hobetu egingo ditugu.**
- **Futbol-aretoko zelaiak berrituko ditugu** Amurrio kalearen eta Mendateen zidorraren inguruetan.
- Zaramagako futbol-zelaiaren eta Mertzedarien ikastetxeen artean dagoen **plaza birgaitu egingo dugu.**

## LANDA EREMUA

- Vitoria-Gasteizko herrietan behar diren **azpiegitura eta udal zerbitzuei buruzko azterlan bat egingo dugu**, garraioaren kalitatea, garbiketa, espazio publiko zaintzea, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko.
- **Hobetu egingo dugu** Vitoria-Gasteizko landa-guneentzako **kultur jardueretarako zuzkidura ekonomikoa.**